

XIII. urtea - 149. zk. 2005eko maiatza

> QEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

evaristo



javier glz de durana [artium] | afrika | mak | kauta

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

CEGASA EVOLUTION

Energiaren indar bizia


BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK




LR03/AAA



LR14/C



LR6/AA



LR20/D



Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute, aipatu ekipo horiek eskatzen duten korrante intentsitate altuko beharrari erantzuna emango dion potentzia handiagoko energia.

Erronka berri honi Cegasa-k emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio handiko pila alkalinoen belaunaldi berri bat. Azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.



CEGASA
INTERNATIONAL

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - Apdo. 3280 - 01013 GASTEIZ

Bezzeroarentzako arreta telef.: 902 322 232 • E-mail: info@grupocegasa.com • www.cegasa.com



GEU Elkartaren ekimenez
sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina,
bideratua eta kudeatua

Erredakzioa:
Pedro Asua, 2 - 3.a. - 01008
Gasteiz
Tfnoa. eta Faxe:
945 22 21 53
e-mail:
geugaste@grn.es

Zuzendaria:

estitxu breñas glz. de zarate

Aldizkari batzordea:

josune velez de mendizabal, edorta sanz,
edurne begiristain, estitxu breñas eta
david alvez

Kazetariak:

josune velez de mendizabal, edurne
begiristain, saioa fdz. de arangiz eta maite
lekue

Argazkiak:

edorta sanz

Bestelako irudiak-bilaketa:

estitxu breñas glz. de zarate, david alvez

Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:

estitxu breñas glz. de zarate

Itzulpenak:

edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri

Maketa:

patirke sanz eta david alvez

logoa:

io grafix

komikia:

iñigo sarasola

Kolaboratzaileak ale honetan:

ana arbulu, javi ruiz, iban zaldia, joseba
mikel agirre, erlantz urtasun, alfredo ibarra
eta diocenasas-mendizorrotzak ostalaritza
eskola.

Publizitatea eta Banaketa:

edurne begiristain

Sustapen-harpidetza saila:

edurne begiristain, estitxu breñas glz. de
zarate eta maite lekue

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92


ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau
paper berziklatuaz egina dago. Geu
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan
adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Euzko Ameterrakoa
Kulturak Saila



Arabako
Foru Aldundia



CAJA LABORAL

GEU ALDIZKARIA zure
etxean jasotzeko bidea
HARPIDETZA da.
Urte osoko kuota: **18 euro.**
(telefonoz - e-mailez)



AHORIK-AHO

7-9

evaristo.
gatillazo

14-16

javier glz de
durana,
artiumeko
zuzendaria



17

adam
zawiszewski,
euskaltasunean
lagun



18-19

asier
otamendik,
arabako
txapela



10-13

musika:
afrika.
mak. kauta.



GAIA

20-21

zinea: egile indigenak



22-24

gaia,
liburutegi
berdea



HAN-HEMENKA

- iritzia (4)

ana arbulu

- kaleak dio (5)

zer eskatzen diozu bizitzari?

- idazleen zutabea (5)

iban zaldia

- iritzia (6)

javi ruiz [trebiñu batu]

18/98+

KULTURAI SIALDIARI SO

- HISTORIA ZERTZELADAK (25)

joseba mikel agirre oar

- AGENDA (26-27)

- ARTE TXOKOA (28-29)

musika: sokaire folk taldea

- BIDAIA (30)

euskal bidaiarien memoria

- ERREZETA (30)

- ARABA BIXOTZIAN (31)

alfredo ibarra

- BERTAKOARI SO! (31)

erlantz urtasun

- GEU elkarte (32)

- GEUekin mendira (33)

- KOMIKIA: tink (34)

iñigo sarasola

Azala ...

evaristo. La Polla 25 urte bete baino lehen
sakabanatu zen, baina horrek ez du esan nahi
taldeko musikariak nekatuta daudenik. Evaristo
abeslariak The Kagas eta The Meas egitasmoetan
parte hartu ondotik, talde berria bilatu du:
Gatillazo. Evaristorekin mintzatu gara bere egi-
tismo berriaz, eta gauza gehiagoz...



evaristo

javier glz de durana (artium) | afrika | mak | kauta.

argazkia: edorta sanz



AG



duintasun
profesionala
defendatzeko eta
elkartzeko gai
zergatik ez gara
kazetariok?

Ez da existitzen

♦ ana arbulu. aukera guztiak

Wojtylak ondo zekien: Gaur egungo gizartean hedabideek agertzen ez dutena ez da existitzen. Ondo ikusi dugu bere hiletan; errealitatea haratago joaten da. Komunikabideetan behin eta berriro zabaltzen dena egia bihurtzen da, gezurra izan arren.

Eta informazioa iritziz nahasten bada, orduan manipulatzeko osagai guztiak ditugu esku artean. Euskal Herriko gatazkarekin aspaldi ari da gertatzen, gero eta nabarmenago. Hedabideak kontrolatzen dituzten botere-taldeak beraien interesen alde baliatzen dira kazetarien lanaz.

Honexek harritzen nau. Zergatik? Kazetariak objektibotasuna behin eta berriro aipatuz justifikatzen dute euren lana.

Objektibitatearen izenean giza eskubideen urraketa batzuk ez dituzte ikusten beste aldera begiratzen dutelako. Horrela erabat desitxuraturatuko errealitate bat zabaltzen dugu; egoera batzuk ezkututzen baitira benetan existitzen direla ukatuz. Ekintza zital honekin talde, alderdi edo proiektu baten alde lan egiten dugu, gizartea manipulaturatuta mantenduz.

Askotan entzuten dugu gure gatazkan distantzikidetasuna onartezina dela, hemen zintzo eta gaiztoaren kontua besterik ez dagoela eta errealitatea hausnartu baino ez dugu egin behar hori gezur hutsa dela ikusteko. Giza eskubideen defentsak batez ere distantzikidetasuna eskatzen

du, baina hasieran esaten nuen moduan, hedabideetan behin eta berriro gezurra errepikatzen bada azkenean gizarteak egia izango balitz bezala onartzen du.

Aukera Guztiak horren guztiaren kontra egiten saiatu da eta kristonak aditu behar izan ditugu. Tertuliano, kazetari, politikari batzuek diote guk salatzen ditugun giza eskubideen urraketa ez direla existitzen. Are gehiago, beste indarkeria justifikatzeko asmatzen ditugula. Horrela borobiltzen dute manipulazioa.

Horrek ez du errealitatea aldatzen, bai ordea gizartearen perzeptzioa.

Ardura maila bat baina gehiago daude, noski, baina kazetariok beste joera kritiko bat behar genuke, are gehiago beti gure ideiekin bat datorren hedabidean lan egitea tokatuko ez zaigula kontuan hartuta. Badakit lan baldintzek ere hedabideetako langileak baldintzatzen dituztela. Estokolmoko sindromea ere sortzen dela pentsatzen dut.

Horrexegatik urteak daramatzat neure buruari hauxe galdetzen: Duintasun profesionala defendatzeko eta elkartzeko gai zergatik ez gara kazetariok?

Duela egun batzuk Gasteizen ikusi dugu kazetariak Petermani intsumisioa nola egin dioten.

Alaveseko presidentea komunikabideen lana zuzendu eta murriztu nahi eta ezinean. Kirol kazetariak planteatzen zioten, prentsaurrekotik alde egin eta hurrengo partiduan futbol zelaian pankarta batzuk ikusi ziren "libertad de información" leloarekin, eta nire galdera zera da: Noizko halako aldarrikapenak potere politikoen aurrean?

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Denboraren poderioz, gure gurasoen eta gure ametsen artean dagoen distantzia handitu egin da erabat. Lehen askatasunaren zirrikituetan oinarritzen ziren gizakien nahi nagusiak. Egun, berriz, oinarritzko beharrak asetzerantz heldu dira gazteek dituzten nahiak.

Etxebizitza eta lan duin bat lortzea ez da aitzin bezain erraza. Gasteizko jendeak norberaren bizitzarako dituen ametsak ezagutzeko asmoz kalera atera gara oraingoan. Hau da kaleko jendeak uste duena:

1.-Zer eskatzen diozu bizitzari?

2.-Zein da zure ametsa?

3.-Beteko al dela uste al duzu?

Iker Ortiz de Zarate, antzezlea

1. Bizitza xumea izan nahi dut. Maitasuna, lasaitasuna eta maite ditudanentzat onena espero dut.

2. Maite ditudanekin bizitzea eta nire lana ondo egitea. Zoriontsua izatea, azken finean.

3. Bai, nik uste dut nahiko zoriontsua naizela, bestela hurbil nago. Gutxienez, nahi eta gustuko dudana egiten dut, lan arloan behintzat, eta maite ditudanak nahiko hurbil ditut.



Xabier Gomez, liburu-saltzailea

1. Batez ere lasaitasuna, bakea eta lasaitasuna.

2. Ez dakit, mementoan zaila da azaltzea. Lasaitasunaz gain, zoriontasuna lortzea.

3. Zoriontasunaren bila izan zaitezke, baina sarritan gauzak etorri egiten dira. Horregatik mementoa aprobetxatu beharra dago eta hori zaila da nire ustez. Argiak izan behar ditugu lortu nahi dugunarekin ez itsutzeko, agian lortzerik ez dugulako.



Ane Larruzea, Turismo ikaslea

1. Gauza asko eskatzen dizkiot bizitzari. Nagusia zoriontsua izatea, lortu nahi dituzun helburu guztiak betetzen joatea.

2. Egunen batean lanpostu ona izatea, nahi ditudan gutizia guztiak emango dizkidan egoera ekonomiko bat lortzea. Oso gutiziazalea naiz, horregatik.

3. Gaur egun gauzak dauden bezala ikusita zaila ikusten dut. Askok borrokatu behar dudala uste dut, bai eta zorte asko izan ere. %20an izango dira nire aukerak.



ibán zaldúa

Kritikaz, enegarrenez

Noizean behin gertatzen da: kritika txarraren baten zantzurik jaso bezain laster (eta, egia esan, batzuetan ez du zertan txarra izan behar, zehazki: horren ona ez izatearekin nahikoa izan daiteke), idazle edo artista *laidoztatuak* kritikaren aurkako hitz garratzak plazaratzen ditu, kritikariaren kritikatzeko eskubidea zalantzan jartzera iritsiz (idazle laidoztatu gajoak, kurioski, ez du halakorik egingo kritikak aldekoak izaten direnean... kritikaria berbera izan arren). Askotan, aldaera gisa, Posteritatearen dohainez aritzen da idazle laidoztatua, Hura bailitzateke, azken finean, kritika egiteko gaitasuna duen ente bakar eta hutsezina: haren obra Historiako dagokion lekuan ipiniko du, eta gero geroakoak.

Hau betidanik gertatu da, jakina -Marzial epigramalari erromatarra irakurtzea besterik ez dago-; gutxi dira kritikaz ondo hitz egiten duten idazleak, Juan Goytisolo bezala: harentzat "idazleek probetxu atera dezakegu ondo oinarritutako kritiketatik, eta niri oso baliagarriak izan zaizkit hutsegiteak konpontzeko eta akatsak zuzentzeko (horregatik esan ohi zuen Nestor Almendros zinemagileak, umorez: 'nik ez diet sekula kritikarik egiten etsaiei: ikas dezakete')". Edonola ere, inor ez da perfektua: zaurituta sentitu denean, kritikariaren aurkako gezi pozointsuak jaurti ditu Goytisolok ere.

Nago, dena dela, kritikaren kontrako jarrera hau oso gaur eguneko delakoa, oso postmodernoa, eta horregatik nabarmen dena geroz eta gehiago, baita gure Euskal Herri honetan ere. Kritikak, halabeharrez, elkarriketa, eztabaida eta gatazka suposatzen dituelako. Eta postmodernitateak zerbait saihesten saiatzen bada, horixe da. Jatorri kroaziarreko Dubravka Ugresic idazleak dioen bezala, "gatazka ekiditen duen inguru kultural batean bizi gara, zeinetan kulturaren monologoak (edo narzisismoak) bazterreratzen bultzatu baitu elkarriketaren kultura. (...) Beste era batean esanda, jende guztia bizkor doa mundura bere mezuak jaurtitzera, eta autopromozioa gizarte-arau bihurtu da. (...) Ez dirudi kulturaren testuek zer ikusirik dutenik kulturaren beste testuekin, tradizionalak garaikideekin ez duten bezala. Ez dago jada bi aldeen arteko komunikaziorik, ezta haien arteko gatazkarik, ezta haien arteko laguntzarik ere; testu bakoitzak bere kabuz zirkulatzen du, beste batekiko antza osoa izan dezakeen arren".

Ez dut uste Ugresic euskal kultura ezagutzen duenik, baina bere erradiografia izugarri ondo egokitzen zaigula esango nuke. Agian, pentsatu ohi dugunaren kontra, ez garelako horren ezberdinak.

Trebiñu batu,

Arabako administrazioan txertatzeko trebiñuko ekimena

TREBIÑU
BATU

Gutxienez duela 358 urtetik badaude dokumentuak lurralde behartu honetako –gaur egun Burgosko Probintzia Diputazioko administrazioaren eta Gaztela eta Leongo Juntaren menpe dago– biztanleen borondatea errespetatu ez dela egiaztatzen dutenak. Historiaren arabera, Trebiñuko biztanleriak ez du inoiz nortasun arabarra galdu.

Trebiñu Batu ekimena joan den urtearen amaieran sortu zen eta lurralde hori Arabako administrazioan txertatzea nahi duten Argantzongo eta Trebiñuko ahal beste pertsona batu nahi ditu. Integrazio hori lortzeko lan ugari eta borroka luzea egin duten pertsonak eta taldeek osatzen dute taldea.

Aurten 25 urte beteko dira inguru honetan demokratikoki hautatutako lehenengo udalek (Francoren diktaduraren ondoren) eskualde hori administratiboki Araban txertatzeko eskaera egin zutenetik. Bestalde, 10 urte beteko dira Madrilgo Senatuan sortutako enklabeen Txostenaren

➤ javi ruiz. trebiñu batu ekimena

irizpena eman zenetik; irizpen horren arabera, inguru honetako biztanleen borondatea errespetatu behar da.

Duela gutxi zazpi urte bete dira Trebiñun 1998ko martxoaren 8an herri-konsulta egin zenetik; konsulta horretan biztanleen %80 inguruk hartu zuen parte eta botoen ia %70 administratiboki Araban integratzearen aldekoak izan ziren.

Elementu horiek guztiek argi erakusten dute aldarrikapen hau historikoa dela eta pertsona gutxi batzuek (ez gara inoiz 2000 baino gehiago izan) lurralde zabal batean (220 km²) egindako aldarrikapena dela; aldarrikapenaren jatorria Nafarroako Erresumak porrot egin zuen garaian bilatu behar dugu, Erresuma horren azken defentsak lurralde honetan eta inguruko beste batzuetan kokatu baitziren.

Ezarpen historiko honek ondorio negatiboak sortu ditu eta gaur egun ere sortzen ditu gure eguneroko bizitzan, ez baitzaizkigu gure nortasuna, kultura,

hurbiltasuna, senitartekotasuna eta arabar eta euskal sentimendua onartzen, guk geuk naturaltasun osoz bizi baditugu ere.

Etengabeko auzia bizi dugu, hitz egitea eta herritarren borondatea errespetatzea baino euren nagusitasuna ezartzea nahiago dutenen irrazionaltasunaren ondorioz. Auzi hori modu irekiagoan agertzen da batzuetan, ezkutuagoan besteetan, baina hortxe dago beti, eta belaunaldiz belaunaldi igaro da. Lehenengo irrazionaltasuna biztanleriaren gehiengoaren borondatea ez onartzea da, bere iritzia askotan adierazi duen arren. Bigarrena biztanleriarekin garai feudalean eta kolonialean bezala jokatzeko da: lurraldea nire da eta, beraz, bertan bizi diren pertsonak ere nire menpe daude. Hirugarrena ezarpen horrek bi udalerri hauekoko biztanleentzat suposatzen duen kostu soziala, politikoa, kulturala eta ekonomikoa da.

18/98+:

Gasteizen ere eskubide zibil eta politikoen alde

1998. urtean Garzon epaileak 18/98 auzia jarri zuen martxan, jadanik ezagun zaizkigun ondorioekin: 221 pertsona auzipetu, hauek asko kartzelaratuak; enpresa eta komunikabideak (Egin, Ardi Beltza, Egunkaria) itxita; gazte erakunde, alderdi politiko eta gizarte mugimenduko erakundeak lege kanporatuta (Xaki, AEK, Kas, Ekin, Joxemi Zumalabe, Jarrai, Haika, Segi, Gestoras Pro-Amnistia, Askatasuna, Batasuna, Egunkaria, Udalbiltza,...); tortura salaketa sinesgarriak,... Aurten gertaera horien inguruko epaiketak hasi dira.

Makrosumario hauetan 18 gasteiztar daude auzipetuta: Patrik Jimbert, Egoitz Lopez de Lacalle, Alejo Moreno, Igor Chillón, Xabi Abasolo, Arkaitz Mtez. de Albeniz, Gorka Betolaza, Asier Otxoa de Retana eta Unai Gonzalez (18/01 auzia, Jarrai-Haika-Segi); Txema Matanzas, Alberto Frias (18/98 auzia Ekin-Zumalabe); Iker Zubia, Maite Diaz de Heredia, Iñaki Loizaga, Ixone Urzelai (Gestoras-Askatasuna auzia); Antton Morcillo, Kepa Gordejuela eta Gotzon Kortazar (Batasuna-Herriko Tabernak auzia). Guztiek publikoki lan egiten zuten, Gasteiz eta Euskal Herriko zilegia den proiektu politiko, sozial eta kultural bat defendatzen zuten, berarekin ados egon ala ez.

Egun hauetan JARRAI, HAIKA eta SEGiko kide izateagatik epaitzen ari diren Gasteizko 9 gazteen kasuan (Patrik, Egoitz, Alejo, Igor, Xabi, Arkaitz, Gorka, Asier eta Unai), guztiek gazteria arloan, ikasle mugimenduan, euskararen alde, auzo elkarteetan, gune autogestionatuetan, jai batzordeetan,... lan egin dute eta horregatik dira ezagunak gasteiztar askorentzat. 9 gazte hauekoko bakar bat ere, ezta auzipetutako beste inor ere ez dute ETArekin zuzenean erlazioatu, ezta inolako kale

borroka edo indarkeria edo lege kanpoko ekintzarekin ere; izan ere, haien aurkako akusazio bakarra aipatutako gazte erakundeetako kide izatearena da.

Hori da hain zuzen auzi honen eta gainontzekoen oinarria: “Dena ETA da”, hau da, ETArekin helburu politiko berak dituzten erakunde guztiak ETA dira. Horrela bada, aurretiaz finkatutako tesi horri jarraiki, talde politiko edo sozialen batetan parte hartzeagatik auzipetutako pertsonen ETAKoak izatea egotzen, erakunde armatuarekin kontakturik inoiz izan ez duten arren eta ez dira bakoitzari dagozkion delituzko jarrerak zehazten. Ondorioz, zilegi diren ideia, ekimen eta jardura sozial eta politikoak kriminalizatu nahi dituztela uste dugu.

Auzi hauekin guztiekin eskubide zibil eta politikoak de facto urratzen ari dira: adierazpen eskubidea, biltzeko eskubidea, elkartzeko eskubidea, askatasun ideologikoa, parte hartze politikorako eskubidea eta disidentziarako eskubidea, eskubideok hiritar guztion ondarea dira, pertsona guztionak, auzipeturik egon ala ez, horregatik Gasteizko eta Euskal Herri osoko gizarteari eragiten digu. Egoera honetan ezin dugu epaiketa hauen aurrean axolagabeki geratu, pertsona hauen eskubide zibil eta politikoak errespetatuak izan daitezela aldarrikatu behar dugu.

Gasteiz hiri anitza eta gizarte mailan aberatsa da eta horregatik askatasunez eta edozein aukera politiko, sozial eta kulturalari jarraituz eraikitze aukera izan behar du, beti ere pertsona guztion eskubideak errespetatuz noski.

18/98 eta gainontzeko sumarioetako Gasteizko senitarteko eta lagunaren plataformaren manifestua

EVARISTO & gatillazo:

"Gizartea kritikatzeaz bizitzea harro egoteko modukoa da"

LA POLLA 25 URTE BETE BAINO
LEHEN SAKABANATU ZEN, BAINA
HORREK EZ DU ESAN NAHI TALDEKO
MUSIKARIAK NEKATUTA DAUDENIK.
EVARISTO ABESLARIAK THE KAGAS
ETA THE MEAS EGITASMOETAN
PARTE HARTU ONDOTIK, TALDE
BERRIA BILATU DU: GATILLAZO.
EVARISTOREKIN XABI ARI DA BAXUA
JOTZEN, GITARRAK OSORONEK ETA
TXIKIK JOTZEN DITUZTE, ETA
BATERIA TRIPIK.

edurne begiristain
arg: edorta sanz

Diskoa Oihuka diskoetxeak argitaratu du, eta guztira 21 abesti bildu dituzte. Hitzak Evaristok idatzi ditu, eta nabari da, egia esan. Taldeak punk-rock azkarra eta bizia egiten du, eta letrak kritikoak dira, ironiaz beteak. Punk soinuaren betiko ardatzak dira, eta era guztietako gaiak izan dituzte mintzagai. Diskoa Arrasateko Shot estudioetan grabatu zuten, Iñaki Bengoaren gidaritzapean. Evaristorekin mintzatu gara bere egitasmo berriaz, eta gauza gehiagoz...

TALDE BERRIA, DISKO BERRIA, BAINA BAITA ITXURA EDO LOOK BERRIA ERE. BETAURREKO HORIEK NONDIK ATERA DITUZUN GALDETZEKO ESKATU DIDATE LAGUNEK.

Kar, kar, kar!! Optika batean erosi ditut. Diskoaren promozioak irauten duen bitartean bakarrik eramango ditut. Gero, beste batzuk jantziko ditut.

NOLA SORTU ZEN GATILLAZO?

La Pollak ibilbidea amaitu orduko, beste zerbaitetan pentsatzen hasi ginen. Bateria eta kitarrarekin (The Kagas taldean aritu ziren biak) harremanetan jarri nintzen talde bat osatu nahi ote zuten galdetzeko. Duela urte eta erdi sortu zen taldea. Osoronek eta biok elkar ezagutu genuen The Kagasen. Gero, The Measen ere elkarrekin egon ginen. Xabi The Kagasen egon zen ia amaiera arte, eta La Polla amaitu zenean, Gatillazon sartu zen.

ETA TALDEAREN IZENA... NOLATAN? LA POLLAREN JARRAIPENA DIRUDI.

Goizero talde izen mordo proposatzen nituen, eta egun batean taldekide batek, aspertuta edo, Gatillazo deituko zela erabaki zuen. Nik beste izen bat nuen gustuko: 'Los concejales muertos'. Eta ingelesez askoz politagoa zen: 'The dead concejals!!'. 'Lluvias Torrenciales' ere oso izen ona zen... behin telebistan eguraldia aurkezten duen gizonak deskuidoan esan zuen!!

EVARISTO TALDEAREN AURREAN EGONDA, JENDEAK LA POLLAREN JARRAIPENTZAT HARTUKO DU TALDEA, EZTA?


Nik ez diot garrantzirik ematen horri. Hala ere, argi dagoena da La Pollaren itzala hor egongo dela beti, nire atzean. Baina berdin dit, La Pollan ibili izana ohore handia izan da niretzat eta.

LA POLLAN IA 25 URTE EMAN ZENITUEN, GERO

THE KAGAS ETA THE MEAS EGITASMOETAN PARTE HARTU ZENUEN. ORAIN GATILLAZO. ZERK BULTZATZEN ZAITU MUGIMENDUAN JARRAITZERA? EZ ZARA NEKATZEN?

Ez, pribilegio bat da niretzat. Eta egia esaten badizut, gizartea kritikatzear bizi ahal izatea harro egoteko modukoa da, ezta? Eta ez naiz nekatzen. Ezta pentsatu

txikia izan den... Dena dela, bai, flipatzeko modukoa izan da neurri batean. La Pollarekin Atlantikoa zeharkatu genuen lehen aldian flipatu egin genuen, ezagutzen gintuzten eta... horrek harritu egin gintuen, bai. Baina ez pentsa oilo-ipurdia jartzen zaidanik publikoak gure abestiak buruz abesten dituenen... kantatu nahi



ere!! Haurra nintzenean mundua suntsitu eta nire buruaz beste egin nahi nuen. Baina argi dagoenez, ez dut nire buruaz beste egin, beraz, beste aukera hori baino ez zait geratzen, eta horretan nabil.

ZUREKIN ETA LA POLLAREKIN BELAUNALDI DESBERDINAK HAZI DIRA. JENDEARENGAN IZAN DUZUN ERAGINAZ JABETZEN ZARA?

Ez dakit. Dakidan bakarra da beste talde batzuek nigan eragina izan dutela. Egia esaten badizut, ez dut pentsatzen gizartean izan dugun eragina handia ala

badute kanta dezatela eta bestela buelta bat ematera joan daitezela, ezta??

ZEIN MOTATAKO JARRAITZAILEAK EGONGO DIRA GATILLAZOREN MUSIKAREKIN IDENTIFIKATUAGO, 20 URTEKOAK ALA 40 URTEKOAK?

Adinak bainoago, buruan duzunak du garrantzia kasu honetan. Normalagoa da gazteek gure musika gustuko izatea, denarekin apurtzeko grina dutelako. Adinak gora egin ahala pentsatzeko modua ere aldatzen joaten da, eta normalagoa da gazteak gure musikarekin

identifikatuago sentitzea, zaharragoak baino.

EUSKAL ROCK ERRADIKALAREKIN HASI ZINEN, 90. HAMARKADAN JARRAITU ZENUEN ETA EGUN ERE MUSIKA MUNDUAN ZAUDE. NOR ALDATU DA GEHIAGO, EVARISTO ALA MUSIKA MUGIMENDUA?

Lehen pentsatzen nuen kontzertuetara mukitsuak baino ez zirela etortzen, baina



gero ohartu nintzen ni ere haurra nintzenez eta kontzertuetara nihoanean mukitsu bat nintzela. Beraz... ez dakit, gauzak ez ditut ikuspegi horretatik ikusten.

ABESTIETAN JORRATZEN DITUZUEN GAIETAN ERE NOLABAITEKO JARRAIPENA SUMATZEN DA. HAU DA, GOGOR JOTZEN DIOZUE ORAINDIK BOTEREARI, FAXISMOARI, ERREPRESIOARI, KONTSUMISMOARI... ZERGATIK?

Ni naizelako letren arduraduna... kar

kar!!!!... Ez, kontua da urteak aurrera joan arren, egoera ez dela aldatu, eta letrek hori islatzen dute.

NOLAKOA DA INDAR KORRELAZIOA GATILLAZON? ZUK IDAZTEN DITUZU LETRAK, ZUK ERABAKITZEN DUZU, ALA GUZTION ARTEKO LANA DA?

Hemen ez dago inolako bozketarik. Lehen desberdinak ginen, eta bakoitzak bereari eutsi egiten zion, eta eztabaidak izaten genituen maiz. Baina Gatillazon bestelako giroa dago, elkar gutxi ezagutzen dugun arren, giro ona dago gure artean. Orokorrean eramaten ditudan letrei ez diete inolako oztoporik jartzen.

NOLA DARAMAZU BERRIRO HUTSETIK HASI ETA KONTZERTUETAKO HASIERAKO TALDEA IZATEARENA?

Oso dibertigarria da. La Pollako lagunekin bizi izatea gustatuko litzaidake: hau da, La Pollak porrot egitea eta behera joatea ikusi nahi izango nukeen. Baina hori Gatillazorekin bizitzea oso ongi dago.

NOIZ ARTE GATILLAZO? ZER ESPERO DUZU EPE ERTAINERA BEGIRA?

Epe ertainean arratsaldean entseiatzea baino ez dut aurreikusten. Gainontzekoan ez dugu ezer eskatzen.

GAUZA BERRIAK EGITEKO GOGOA DUZUELA SUMATZEN DA DISKOAN, HAIZEZKO MUSIKATRESNAK BI ABESTITAN ERABILI DITUZUE ETA.

Erronka bat jarri genion geure buruari. Izan ere, Arrasaten lagun bat daukat eta berak erronkak jartzen dizkigu talderako. Eta erronka horietako bat horixe izan zen, haizezko musika-tresnak erabiltzearena... Betagarriko txarangarekin jo dugu bi abestietan, eta ongi!!

NOIZKO EUSKARAZKO KANTA BAT EVARISTO?

Gustatuko litzaidake, baina horretarako jakin egin beharko nuke. Hiru minutuko elkarrizketa bat jarraitzea gustatuko litzaidake. Apur bat badakit, baina ez naiz moldatzen. Aditzekin nahastu egiten naiz, eta izorratu egiten nau eskolara joateak, azken eskola autoeskola izan zelako eta nagusi nintzen ordurako. Bi metodo ditut euskara ikasteko, eta horretan nabil. Nahiko nuke, bai... gehienbat publiko erdaldunari begira gustatuko litzaidake egunen batean bost edo sei disko euskara hutsean ateratzea, haiek nirekin moskeatu daitezen, kar, kar, kar!!!



MELEN LAURDENA DENEN AHOTAN

EVARISTO PERTSONA ASKI EZAGUNA DA EUSKAL HERRIAN. LA POLLA TALDEKO ABESLARIA IZATEAGATIK EGIN DA OSPETSU. BAINA PUNK TALDEKO KANTARIA IZATEAZ GAINERA, IDAZLE MODUAN ERE ARITU DA, 'POR LOS HIJOS LO QUE SEA' LIBURUA ARGITARATU BAITZUEN DUELA BI URTE. HAUXE BERE IBILBIDEA:

- 1979- La Polla taldea jaio zen, Agurainen.
- 1981- La Pollak lehen maketa argitaratu zuen.
- 1983- La Pollaren lehen diskoa: Y Ahora qué?
- 1984- Salve
- 1985- Revolución.
- 1987- No somos nada.
- 1988- Donde se habla.
- 1988- En directo.
- 1990- Ellos dicen mierda nosotros amen.
- 1990- Los jubilados.
- 1992- La Polla Records.
- 1993- Hoy es el futuro.
- 1994- Bajo presión.
- 1996- Carne pa'la picadora.
- 1998- En tu recto.
- 1999- Toda la puta vida igual.
- 2001- Bocas.
- 2003-2004- The Kagas eta The Meas egitasmoetan parte hartu zuen RIPekin.
- 2003- 'Por los hijos lo que sea' liburua kaleratu zuen Txalaparta argitaletxearekin. 84 istorio txikik osatutako liburua da, eta 7.000 ale baino gehiago saldu zituen.



AFRIKA BIBANG

2 001 eta 2003 urteen artean bestelako egitasmo musikaletan hartu zuen parte, besteak beste hainbat diskoteketan izen handiko Djekin batera (Dj Oliver, Sebastian Gamboa, Dj Pipi) edota "Rudo & Friends Sound System" zuzeneko house taldearekin batera. Hauekin 2003an 30 kontzertutik gora eman zituen house musika lantzen duten areto ezberdinetan Bilbo, Iruñea, Gasteiz, Gijon, Biarritz, Bartzelona, Vigo, Malaga eta beste hainbat tokitan.

Fermin Muguruzarekin zenbaitetan kolaboratu eta honek bakarkako lan bat egin zezan maiz hitz egin ostean, 2003ko udaran "Rudo & Friends Sound System" taldeko gitarra jole den Israel Monzoncilloarekin eta Ernesto Maestro ekoizle eta konposatzailearekin lanean hasten da eta zenbait zirriborro osatu. Gerora, 2003ko azaroan, Fermini demo gisa aurkeztu ziotena hain zuzen ere. Ferminnek bere gain hartu zuen diskoaren grabaketa Metak diskoetxearekin batera, eta bi hilabetez diskoak izango dituen behin betiko arregloak lantzen hasten dira. Horrela Kontrakalea Metak kalean ipintzen du diskoa maiatza hasieran. Diskoak euskal musikari atxikitzen zaizkion zenbait estereotipoekin apurtu nahi du, distorsionaturiko rocka eta folkarenak, eta musika landuago bat eskaini Soul, Jazz eta R&B ukituekin. Hein batean Afrikak jaso dituen eraginengatik baita ekoizle izan diren Israel eta Ernestorenak. Diskoan aurki daitezkeen kolaborazioak anitzak dira, Jon Urrutia latin pianoak Borja Barruetaren bateriak (egun Carmen Parisekin), Gorka Escauriazaren funk baxua, Travis Flinten scratchak, Sorkunen ahotsa, eta Fermin Muguruza eta bere Kontrabandako zenbait kideren


AFRIKA BIBANGek
ESKARMENTU HANDIA
DU ZUZENeko
ABESLARI LANETAN.
EUSKAL TALDE
ASKOTAN BIGARREN
AHOTSAK EGIN IZAN
DITU, TARTEAN
ETSAIAK, KEU ETA KE
RULEREKIN.

afrika
ENTZUN



MAK

josune veleiz de mendizabal



DONIBANE LOHITZUNeko GAZTETXEAN, ONDARRUN, GETARIAN, BILBON -
KORRIKAREN EGUNEAN-, TOLOSAN ETA ELIZONDON ESKAINI DITU ORAIN
ARTE KONTZERTUAK MAK (MIKROFON ADDIKT KLAN) TALDEKO
BOSKOTEAK. GASTEIZA, BERRIZ, HILAREN 14AN ETORRIKO DIRA
LEHENDABIZIZ, AZKENA ARETORA, AFRIKAREKIN BATERA. MAK TALDEAK
KALERATU BERRI DUEN LEHEN LANA "SUARI DARION KEA" DERITZA ETA
EUSKAL HERRIAN ORAINDIK ERROTZEKE DAGOEN HIP-HOP ESTILOA
AURKEZTERA ETA ZABALTZERA DATOR.

Sarri ikusi izan dugu
agertokietan eta sarri ere
hainbat diskotan entzun
kolaboratzaile gisa (aspaldian
Etsaiak taldearekin eta
azkenekoz Fermin
Muguruzarekin). Hau, Ekuatore
Gineako euskaldunak, bere
izenez sinatzen duen lehena da
eta euskal musikari haize berriak
dakartzkio, izan ere elektronika,
r'n'b, soul eta beste zenbait
iturritatik edaten duen musika
duzu, hasieratik harrapatuko
zaituen ahots batek gidatua.

**AFRIKA & MAKen kontzertua
GASTEIZEN
MAIATZAREN 14an, AZKENA
ARETOAN (KONTRAKALEA
EKINTZA). GAUEKOAKen eskutik.
20:00etan**

Agertokian dena ematen duen talde horietako bat da MAK. Kantatzeaz gain, ikus-entzunezko teknika eta dantza uztartzen dituzte Ziburu, Donibane Lohitzune eta Baionako gazte hauek beren zuzenetan. Apustu berria dakarte eta hip-hop doinuak beste hainbat estilorekin nahastu egiten dituzte. Hizkuntza nagusi euskara bada ere, mezuak mugak gaindi ditzan, gaztelaniaz, katalanez eta frantsesez ere egiten dituzte kantak. Kolore askotako ortzadar oparoa dakar MAK proiektu berritzaileak, zuzenean biziki disfrutatzen den horietakoa, alegia. Ikustekoa.

ZUEN LEHEN LAN HONEK HIP-HOP ESTILOA DU OINARRI, EUSKAL HERRIAN OSO ZABALDUA EZ DAGOEN MUSIKA, EZTA?

Egia da talde oso gutxi jorratzen dutela musika estilo hau. Munduan zehar, ordea, pisu handia hartu du musika mota honek, eta Euskal Herrian, aldiz, oso gutxi. Beraz, guk, Iparraldekoak garen heinean, estatu frantziarrean gehiago zabaltu diren erritmo hauen eragina izan dugu, eta oso gustukoa dugu hip-hopa. Zentzu horretan espero dugu Euskal Herrian gero eta gehiago zabaltzea eta leku bat topatzea.

BIGARREN HELBURU BATI HELDUZ ERE KALERATU DUZUE DISKO HAU, "KANPOAN GURE ESPERIENTZIAZ HITZ EGITEKO", ALEGIA. HALA DA, EZTA?

Bakoitzak gure koplak idazten ditugunez batzuei modu naturalean atera zitzaien euskaraz idaztea, beste batzuei gaztelaniaz, katalanez eta frantsesez. Guretzat oso inportantea da euskaraz kantatzea eta hitz egitea, baina azkenean gertatzen dena da mezua Euskal Herriko eszenan geratzen dela soilik. Hizkuntza ezberdinetan idaztea modu naturalean atera zitzaigula aprobeztatuz, Euskal Herriko egoeraren berri zabaltzeko aukera bat ere izan daitekeela pentsatzen dugu.

HALERE, ZUEN TALDEA EZ SOILIK HIZKUNTZA ALDETIK BAIZIK ETA ESTILOARI DAGOKIONEZ ERE OSO ANITZA DA, KOLORE ASKOTAKOA ESANGO GENUKE.

Bai, hala da. Boskote bat elkartu ginen hip-hopa lantzeko



KAUTA

josune veleaz de mendizabal

**GASTEIZEN JOTZEKO
GOGOAREKIN DATOR KAUTA
ARABAKO HIRIBURURA
HILAREN 20AN (KINVARA
ARETOAN, 20:30EAN).
"BIZKAIAN MUGITU GARA ETA
HANGO GIROA ANIMATUA DA,
GIPUZKOAN EZAGUNAGOAK
GARA, ETA GASTEIZKO JENDEA
KONTZERTUETAN NOLAKOA
DEN EZ DUGU EZAGUTZEN ETA
GOGOA DAUKAGU
DESKUBRITZEKO", DIO MIKEL
MORENO ABESLARIAK.**

Kauta 2001 urtean sortu zuen Andoaingo laukote gazte batek. Beste musika taldeetan ibili gabekoak diren arren epe laburrean bidea ireki dute euskal musikaren panoraman. Taldearen izena gero eta entzunago izaten hasi zen 2003ko Euskadi Gazteak-ek antolatutako lehiaketan entzuleen saria jaso ostean. Iaz, aldiz, euren lehenbiziko lana, "Izan zaitez zu" izenburukoa, kaleratu zuten gazteek. Orain diskoa Euskal Herriko hainbat tokitan aurkeztzen ari dira, Gasteizek ere bere kantak entzuteko parada hartu duela.

**mikel moreno,
abeslaria**

2001EAN HASI ZIREN ANDOAINGO GAZTE HAUEK MUSIKA EGITEN INONGO ASMO SENDORIK GABE. SARIRIK SARI, 2004AN LEHENBIZIKO DISKOA KALERATU ZENUTEN. IBILBIDE OPAROA, BIDE ERRAZA?

Dena oso azkar gertatu da, egia da. Diskoa atera eta leku garrantzitsuetan, kilometroak-en adibidez, eta kontzertu handietan aritu gara. Duela urtebete diskorik gabe geundela konturatzen zara eta orduan hain ezagunak ez ginela, eta ematen du izugarritzko gorakada izan dugula epe laburrean. Hortaz, konturatzen zara gure izena gero eta entzunagoa izan dela denbora gutxian, halere, duela hiru urteko lana izan da. Baina diskoaz gain hor atzean ordu asko sartu ditugu, entseioak etab. Gainera gutariko batzuentzat haxe izan da osatu dugun lehenbiziko musika taldea, hau da, aurretik ez gara beste inon ibili, eta horregatik ordu dezente eman dugu. Honekin esan nahi dudana da badagoela lan bat ikusten ez dena, nahiz eta gustura eginiko lana izan den. Bestetik, ukaezina da zortea ere izan dugula.

ZUEN IBILBIDE MUSIKALA KAUTA TALDEAREKIN HASI DUZUE, NOLA DEFINITZEN ZARETE?



helburuarekin, baina hasierako esperientzia horretatik bestelako gauzak ere atera ziren. Guk samplerrak erabiltzen ditugu eta hauen erabileraren ondorioz musika estilo desberdinak sartzen ditugu: hard-core erritmoak, eragin latinoak, sinfonikoak, rock eta jazz, adibidez. **ZUEN KONTZERTUAK MUSIKAZ GAIN BESTELAKO EKINTZEKIN ERE JANTZITA DATOZ, IKUSKIZUNA DERITZONA, EZTA?**

Oso betea da proiektu hau, hau da, Hip-Hopa aipatzen dugunean lau mugimenduz ari gara: repeatzea, 'scrach' egitea, djak eta dantzariak. Hortaz, egitasmo honetan lau hauek bildu nahi genituen. Gure kantak irudikatzeko modu bisuala ere landu nahi genuen, eta hainbat adiskideren laguntza probestuz argazkilariak eta margolariak ere aritzen dira gurean. Orain arte dantza tradizional baten berrikuspena eskaini dugu, baina hau dena zuzeneko dantzariekin osatu nahiko genuke, eta espero gure hurrengo pausoa break-dancea gure ikuskizunetan sartzea izango dela.

"MAK (Mikrofon Addikt Klan) taldea 2003. urtean sortu genuen Ziburu inguruko herrietan, hip-hop musikazale bost lagunek: Mathieu 'LAGOGN', Jo 'TXAPUTXINO', Jon, Claire eta Dj Alf. Musikaren aldetik hiphop-aren 'sample' eta harkor erritmo batzuk erabiltzen ditugu, bestelako influentziekin lotuz: latinoak, sinfonikoak, rock ala jazz eraginak".



Taldekieon artean oso musika ezberdina entzuten dugu. Melodikoa gustatzen zaigula esan dezakegu, ez motela, baizik eta pixkat azkarra dena. Baina orokorrean denetarik dugu gustuko. Batzuek power-pop bezala definitu gaituzte, eta hortik abiatuta uste dut mugitzen garela, bai hard-core bai erritmo melodikoekin nahastuta, agian.

KAUTAREN LEHENBIZIKO LANAK ZALEAK BEREKANATU DITU. ZEIN DA ZUEN USTETAN JENDEARENTZAT ZUEN MUSIKAK DUEN AMUA?

Jendearekin egia esateko oso gustura gaude, esan nahi dut, agian talde gaztea eta berria izateak sorturiko freskura izango da. Baina ez dakit... gu oso gustura gabiltzala argi dago. **TALDE GAZTEAK AIPATU DITUZU, AZKEN URTETAN UGARI SORTU DIRA. GUZTIONTZAT LEKURIK AL DAGO?**

Musika aldetik aurten talde berri asko

atera garela ikusi dugu eta oso atsegina da, batez ere, musika estilo desberdinak lortzeko, hala nola, Kerobia, Lor... eta horiek guztiak. Lorpenak ere egon dira, esaterako Kerobiaren kasuan, apustu handia egin dute orain artean ez zegoen estilo musikala lantzen eta ausartak izan dira... ondo dator noizean behin aire berria sartzea Euskal Herrian. **ZUEN DISKOAN BERRI TXARRAK-EKO GORKA URBIZUK KOLABORATU DU, NOLA SORTU ZEN IDEIA HAU?**

Beri Txarrak taldea dezente gustatu zaigu betidanik taldekideoi. Entzuten dugun kanpoko musikaz aparte, Euskal Herrian talde potentea izan da eta gustukoa genuen, eta batez ere, ilusio bezala sortu zen ideia hau. Tipoa ezagutu genuen eta komentatu genion, animatu zen, ez zigun batere arazorik jarri eta aurrera egin genuen. Batez ere hori izan zen kontua, guretzako inportantea zen zerbait, eta inolaz ere promozioari begiraturiko zerbait.

KAUTaren kontzertua GASTEIZEN MAIATZAREN 20an, KINVARA ARETOAN ("Vitoria-Gasteiz, Hiri Gaztea" jaiaren barruan). GAUEKOAKen eskutik. 20:30ean

JAVIER GONZALEZ DE DURANA, artiumeko zuzendaria "Gainontzeko museoek begirunez, konfiantzaz begira diezaguten bide"

JAVIER GLEZ DE DURANA (BILBO, 54 URTE) LAU URTE DARAMATZA ARTIUM MUSEOAREN ZUZENDARITZA LANEAN. BIGARREN HEZKUNTZA ETA UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA IZANDAKOA, BILBOTARRAK ARTEAREKIN HARTU-EMAN ESTUA IZAN


DU BETIDANIK, JOSEBA ARREGIREN KULTURA SAILAN AHOULKULARI ZENekoAN ETA OSTEAN, SALA REKALDEKO BURU IZAN BAITZEN. IRAKASKUNTZA BERE BIGARREN BOKAZIOZKO KARRERATZAT HARTZEN DU ETA EZ DU BAZTERTZEN EGUNEN BATEAN IRAKASLE

Arte Garaikideko Euskal Museoak hiru urte bete ditu iragan apirilaren 26an. Ordutik eta maiatzaren 18ra arte (Nazioarteko Museoen Eguna), Artiumek egitarau sendo eta anitza prestatu du 'Veintena museística' (Museo arloko hogeikoa) izenpean. Datozen egunetan hortaz, hitzaldiak, lantegiak, dantza, musika eta museoan barreneko doako bisita gidatuak bisitarien eskura jarri ditu Artium-ek.

HIRU URTE DIRA MUSEOAK BERE ATEAK IREKI ZITUENETIK. BERTAN LANEAN ALDIZ, LAU URTE DARAMATZAZU. ZEINTZUK IZAN DIRA JAVIER GLEZ DE DURANA JASO DITUEN POZAK ETA TRISTEZIAK?

Poztasunak... guztiak. Baina baten bat azpimarratzearren, profesional eta kolaboratzaileez osaturiko talde teknikoaren finkatzea nabarmenduko nuke. Izan ere, talde osatua, non guztiek bat egiten duten, museoaren bizkarrezurra da, egonkortasuna ematen baitio egitasmoari. Poztasunen artean, bestetik, hain denbora gutxian gainontzeko museoetatik irabazi errespetua ere aipagarria da.

Tristeziei dagokienez oster, ...hasieratik aurreikusitakotik nahiko ondo aterata da dena..., baina ez nuke nahi galdera hau erantzunik gabe uztea... ea ba... Badakit,



oso museo gaztea izan arren, Arabako Foru Aldundiak utziriko ondareen poltsa handi bat izan dugu hastapenetik, guztira 1.600 obra. Bestetik, museoak, ireki

zenetik salmenta aktibitate ugari izan du. Hori dela eta, egun guztira Artiumeko biltegian 2.200 obra inguru daude eta dagoeneko ez dira gehiago sartzen.

SARLU
Zure arropa eta oinetakoak
www.sarludenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA TABERNA
Equilibrio, astaldenetik ostelera
JANTOKI BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 33

TXUKUNA
EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihaletak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...
Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE
Euskaltegia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tinoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

sinesgarritasunez eta an ari gara"

LANETARA BUELTATZEA. "IZAN ERE, ZUZENDARI POSTUA EZ DA BEHIN BETIKOA. KONFIANTZAZKO PERTSONALA GARA BAINA TEKNIKARI MAILAN, ETA EZ ORDEA, MAILA POLITIKOAN".

Artium

josune veleiz de mendizabal
arg: edorta sanz

BEGIRATZEN ZIOTEN GASTEIZKO ZENBAIT ARTISTAK ETA SEKTOREK MUSEO BERRIARI. ZERTAN DAGO KONTUA?

Artista talde baten gutxien fenomeno izan zen hura. Egia esateko, guk Amarica Aretoaren itxierarekin ez genuen zerikusirik izan eta hein batean artista talde hau gutaz baliatu zen bere aldarrikapenak egin ahal izateko. Arabako Foru Aldundia zen euren aldarrikapenei erantzuna eman ziezaiekeen bakarra. Guri ordea, ezertan ez digu laguntzen eta bai, aldiz, kalte egiten, Gasteizen arte garaikidera dedikatzen den instituzio bakarra izateak. Hala eta guztiz ere, hori aldarrikapena egiteko modu bat besterik ez zen izan eta behin agortu denean ez dugu eurekin inolako arazorik izan.

ZER HELBURUREKIN SORTU ZEN MUSEOA, ETA AURREIKUSITAKO EGITASMOTEN SO BAITAN ZEIN PUNTUTAN DAGO EGUN?

Museo baten helburuak asko dira eta bakar bati buruz hitz egitea ez litzateke zuzena. Baina zerbait abstraktua aipatzeagatik honako hau esango nuke, euskal, arabar eta gasteiztar gizartearengan gizabidezko espiritua osatzea. Hau da, guri dagokigun arloan, artean eta kulturean, alegia, gure gizartea sendoa egiten saiatzea da,

besteak beste, gure helburuen artean nagusi. Nola esan aurrean hori lortu dugun edo ez? Ez dut uste epe motzera emaitzak ematen duen helburua denik, beraz, itxaron beharko dugu. Beste helburu batzuei dagokienez, gainontzeko museoek begirunez, sinesgarritasunez eta konfiantzaz begira diezaguten bidean ari gara.

3 URTEOTAN ASKO BEGIRATU ZAIO BISITARIEN KOPURUARI. LEHEN URTEKO JAKINMINAREN ONDOREN KOPURU NORMALAGOAK JASO DIRA AZKEN 2 URTEETAN. HALERE, ZUK HAINBATETAN ESAN DUZUNAGATIK, ZIFRAK EZ DITUZU MUSEOAREN EGINBEHARRAREN NEURGAILU ONTATZAT HARTZEN, EZTA?

Ez museo honentzat, ez gainontzekoentzat. Datu horiek manipulagarriak dira erabat. Hau da, benetan bisitarien kopurua balitz museo batentzat inportanteena mila trikimailu egingo genituzke eguerdian jubilatuz beterik izateko museo, eta diot jubilatutako gizartearen beste sektore batez arituko banintz bezala. Baina hori ez da kontua. Gainera, ematen du museoaren aktibitatea jendearen oporraldietara parekatu behar dela, helburu komertziala nagusi bailitzan. Paradoxa sortzen da

Ondorioz, biltegian dagoen leku falta alarma seinaleztatzen joko nuke.

AMARICA ARETOA DESAGERTZEKO MEHATXUPEAN SORTU ZEN ARTIUM. ONDORIOZ, MESFIDANTZAZ

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Quetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
ortzean) Tfnoa: 945 25 03 52

>GEU
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA
PUBLIZITATEA
945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ

JAVIER GONZALEZ DE DURANA

erakusketatik erakusketara di-da

Zeintzuk izan dira bisitari kopuru gehien bereganatu dituzten erakusketak?

Laoconte Devorado, hau arte garaikideko gaikako erakusketak onenatzat jo zuen kritikak; eta Agrupémonos Todos.

Alderantziz. Hots, bisitari kopuru murrizta baina erakusketak aipagarriak izan direnak?

Nicolas Lekuona eta Eames arkitektoena. Hauek ez dira oso bisitatuak izan baina sektore espezializatuak eta kritikak oso ondo baloratu zituzten eta ahoz aho komentatuak izan dira biak.

Kopurua alde batera utzita, asko bisitatu den erakusketak?

...Jende asko sarrerara gerturatzeko Javier Perezen kristalezko eskultura eta Miroren zeramika ikustera; askotan lagunak ekartzen dituzte eta erakusten dizkiete, gero alde egiten dute (barre egiten du Javier Gonzalez de Durana). Uste dut sarrera dela museoko aretorik bisitatuena, kar, kar.

Artium-en erakusgai edukitzea gogoko zenukeen artelana?

George Baselitz artista alemaniarrena; honek abstrakzioa egiten du figurazio ukituarekin. Beste bat ere ekartzen saiatu naiz, Bill Viola, hau margolaria da. Espero aurrerago hauen artelanak erakusgai eduki ahal izatea.

Artium-ek daatozen hilabeteetarako prestatu duen egitaraua?

Pedro Irazabal-en lan monografikoa erakusgai izango da; artista hau Puenteleña-koa bada ere AEBetan bizi da aspaldian eta Araban orain arte ez du horrelako erakusketarik egin. Richard Diaconen erakusketak ere ikusmin handia du; Alemania eta Finlandiako museoekin elkarlanean egin da. Gero euskal artista gazteak ere izango ditugu gurean, Mäider López, Veneziako Bienalean izango den artista euskaldun bakarra, eta Bilboko margolaria den Ignacio Saez.

entsatzen dugunean tratatu hobea eskaini behar diegula euren bizitzan behin besterik ez gura datozei, gure bizilagunei, hots, euren zergekin museo hau posible egiten dutenei baino. Ez zait, hortaz, neurgailu ona iruditzen, beste hainbat faktore izan behar baitira kontuan museo baten emaitza baloratzeko orduan.

ZEIN DA MUSEO HONEK BISITARIENTZAT DUEN ERAKARGARRITASUNA?

Ekintzak, egitaraua eta bertan

DAUKAN ARTE BILDUMA?

Artium sortu zenean Arabako Foru Aldundiak erabaki zuen instituzioak zeukan ondare zabaletik 20-30 hamarkadetatik aurrerako artelanak Artium-ek kudeatzea eta urte horietatik atzerakoak Arabako Arte Ederrak kudeatzea. Hor ezarri zen muga. Ondorioz, Arte Garaikideko Museoen bildumak atariko on bat osatzen du 50. hamarkadatik jasotako abangoardia artistikoen artelanen

berreskurapenari esker. Baina ez gara soilik arte historikoa biltzen ari, baizik eta arte garaikideko obrak ere biltzen dihardu gure lanak.

ETA ZER-NOLAKO IRIZPIDEAK HARTZEN DIRA KONTUAN ARTELAN BAT EROSTEKO ORDUAN?

Abangoardia historiakoak, hala nola, surrealismoa, espresionismoa, abstrakzioa, eta abarren lekuko diren artelanak erostean datza. 50. hamarkada eta 2000 urte bitartean gure bilduman

dauden hutsuneak (autore, data edota garaiei dagokiari) osatzen oinarritzen gara. Horretarako, enkante-etxeak, estudioak eta arte galeriak miatzen ditugu, baita artelanen kalitatea ere, noski! Moda alde batera utzita artearen garrantzi handiko baloreei erreparatzen diegu.



dagoen artea pentsatzen dut. Absurdua litzateke bestela artea gustuko ez duena Artium-era bisitan etortzea. Museoak giza adimenaren sorkuntzarekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen die bisitariari, beste museo batean ematen ez diren itxura edo koloreen bitartez, besteak beste.

ZERTAZ OSATZEN DA EGUN ARTIUM-EK

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna

"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74



Adam Zawiszewski "Bizitzeko tresna dut euskara"

POLONIAKOA DA ADAM ZAWISZEWSKI. EZ DU EMATEN, ORDEA. EZ BEDEREN EUSKARAZ HITZ EGITEN DUENEAN. IZUGARRI ONGI MINTZATZEN BAITA GURE HIZKUNTZAN, FRESKOTASUN ETA JARIOTASUN HANDIAREKIN, GAINERA. EUSKARA POLONIAN BIZI ZENEAN EZAGUTU ZUEN, 1992. URTEAREN BUELTAN, UNIBERTSITATEAN ZEGOENEAN. EUSKARA HORRENBESTE GUSTUKO ZUENEZ, EUSKAL HERRIRA ETORRI ZEN ORAIN LAU URTE. ZENBAIT HERRITAN IBILI OSTEAN GASTEIZEN GELDITU DA, EUSKAL LINGUISTIKA KARRERA IKASTEN EHUN. HIZKUNTZALARITZAREN INGURUKO TESIA EGITEN DABIL.



- DEFINITU ITZAZU EUSKALDUNAK HITZ BITAN:
Jatorrak eta irekiak.
- ETA POLONIARRAK?
Berdin.
- ZER DA EUSKARA ZURETZAT?
Egunero erabiltzen dudana hizkuntza, komunikatzeko eta bizitzeko tresna.
- EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?
Bai.
- BIZIORIK?
Hemengo janaria.
- BERTUTERIK?
Hori besteek esan beharko dute!
- ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?
Ez dut aparteko nahirik, pozik bizitzea, gustura egotea.
- AMETS BAT?
Jubilazioa hartzen dudanean Lekeition bizitzea.
- ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?
Behin eta berriro gauza bera galdetzen ibiltzeak.
- EGUNKARI BAT:
Berria.
- TELEBISTA SAIO BAT:
Ez dut telebista asko ikusten. Akaso La 2 kateako saioak.
- LIBURU BAT:
Anjel Lertxundiren baten bat.
- AISIALDIAN ZER?
Lagunekin egon, Lekeitiora joan, buelta bat eman...
- EDARI BAT:
Ardoa eta sagardoa. Bakoitza bere unean.
- ONGI PRESTATZEN DUZUN JANARIA:
Patata tortilla.
- MUSIKA GUSTUKOA:
Denetarik entzuten dut.
- OPORRAK NON?
Kostaldean.
- GASTEIZEK DUEN ONENA?
Bizitzeko erosoa da, eta Alde Zahar ederra dauka.
- ETA TXARRENA?
Hotza.

Baina ez hori bakarrik: Jaroslaw Iwaszkiewicz poloniarren 'Wilkoko andereñoak' liburua euskarara itzultzeraz auzartu da. Euskara ez dela zaila dio, ez behintzat gramatika aldetik. Euskara maila itzela duela esaten dioten baikotzean poztu egiten da, baina jarraian dio "benetako meritua" bertakook dugula. Gustura dago Gasteizen, eta oro har Euskal Herrian, "harrera oso ona" egin diogu eta.



ASIER OTAMENDI: "Arabako bertsolaritzak behar duena eskolak profesionalizatzea da"

saioa fdez de arangiz
arg: edorta sanz

IGARO DEN APIRILAREN 9AN, ASIER OTAMENDIK ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAREN TXAPELA JANTZI ZUEN ZORTZIGARREN ALDIZ. FINAL AURRETIK, TXAPELKETA BESTE BATEK IRABAZTEA ARABAKO BERTSOLARITZARENTZAT "MESEDEGARRIA" IZANGO ZELA ESAN BAZUEN ERE, POZTASUN HANDIA SENTITU ZUELA AITORTU DU URRETXUKOAK. HONETAZ GUZTIAZ, ETA ARABAKO BERTSOLARITZAREN EGOERAZ MINTZATU ZAIGU HURRENGO SOLASKETAN.

-LEHENIK ETA BEHIN, ZORIONAK...

Mila esker.

-ZORTZIGARREN ALDIZ, ARABAKO TXAPELKETAREN TXAPELA ESKURATU DUZU. IZAN ERE, AURRETIK ESAN ZENUEN TXAPELA BURUZ ALDATZEA MESEDEGARRIA IZANGO LITZATEKEELA. NOLA SENTITU ZINEN, BADA, IRABAZTEAN?

Pozik, oso polita delako, hala ere, ez zitzaidan gehiegi arduratuta galtzea ala irabaztea. Nik hainbat alditan irabazi dut txapelketa eta egia esan, ez dit ezer berririk aportatzen. Nahiago dut beste batek irabaztea, betiere bere merituz baldin bada. Mesedegarria izango litzateke, Arabari kolore eta aberastasun gehiago emanaz. Dena den, txapelketan zaudenean ez duzu horretan pentsatzen eta bertso onak botatzen saiatzen zara.

- NOLA IKUSI ZENUEN ZURE BURUA?

Egia esan, hasieran oso urduri nengoen, azken finean, lehiaketa bat da, ahalik eta ondoen egin nahi duzu eta tentsioa nabaritzen da. Saioan aurrera joan ahala konfiantza hartu nuen, dena erraztuz. Bukaeran, berriz, hobetu sentitu nintzen, bakarkakoan, batez ere.

-ZEIN ZEN ZURE FAVORITOA?

Oihane oso ondo ikusi nuen,

gogor joan zen, lehiaketa ondo prestatu eta txapelaren bila zihoala nabaritu zen. Baina batez ere, Zigor Enbeita eta Juan Mari Juaristi oso ondo ikusi nituen, ofiziotan bereziki.

-TXAPELKETA JORRATUTAKO GAIEI DAGOKIENEZ, EGOKIAK IRUDITU ZITZAIZKIZUN?

Ez daukat kezarik gaietaz buruz, ondo iruditu zitzaizkidan. Gai ezberdinak jorratu ziren. Nirentzat azkenekoa izan zen zailena, istorio bat hutsetik sortu behar izan nuelako ("Gaur goizean esnatu zara eta ez duzu jaiki nahi"). Memento batean, zuri geratu nintzen. Nahiko zaila egin zitzaidan baina arriskatu eta hiru ideia garatu nituen. Bi aurpegiko txanpona bezalakoa izan zen, batetik, zaila da eta arriskatzen zara, baina azkenean asetasun handia sentitu nuen.

-BOTA ZENITUEN BERTSOEN ARTEAN, ZEINEKIN GERATU ZINEN EROSOEN?

Nik uste bakarkakoan. Esan bezala, niretzako gaiak zailak izan ziren, bertso oso bat hutsetik sortu behar izan nuelako eta asko kostatu zitzaidan, halarik ere, konforme geratu nintzen. Bakarka

egitea lan
pertsonala da,

arrisku pertsonala, alegia. Akaso fruitu onenak eman zizkidana.

-AURTEN FINALAREN ESZENATOKIA ALDATU ZEN ETA DIRUDIENEZ, HORI PUBLIKOAN NABARITU DA. NOLAKO GIROA SUMATU ZENUEN?


200 edo 300 lagun inguru hurbildu ziren bertara eta beraz, etxeagoa zela nabaritu genuen. Hori aztertu beharreko puntua dugu, lehenengo publikoa berreskuratzen saiatu behar dugulako. Dena den, finalerako Principal Antzokia ere berreskuratu beharko genuke, bertsolarientzat, publikoarentzat zein Arabako bertsolaritzarentzat areto aproposena delako.

-ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA FINALETAKO KARTELETAN BETI AURPEGI BERTSOLARIK IKUSI OHI DITUGU. ZEREN SEINALE DA HORI?

Egia esan, azken urteetan ez da kartela gehiegi aldatu eta hori aztertu beharreko gauza da. Izan ere, denbora honetan bertsolaritza aski ari da hedatzen probintzia osoko eskoletara. Hala ere, baliteke prestakuntza egokia falta izatea. Hau da, bertsolari onak izan daitezkeen gazteak

aukeratzean,
lan gehiago
egin behar dela
uste dut. Orain





DI-DA

Liburu bat: Paulo Coelhoen 'El Alquimista'

Musika mota: arabiarra

Film bat: Diarios de motocicleta

Leku bat: Ingurukoa, Garaio, bizikletaz ibiltzeko

Bertsolari bat: Uztapide

Biziorik handiena: Ondo jatea

Amets bat: Mundu guztia errentzat eskubideak berdin banatzea

artekoa baliogarria da baina hobetu beharra dago, besteak beste, eskola horiek profesionalizatuz. Gazte hauek bertsotan egitera iristen dira, baina bertsotan egitetik bertsotan ondo egitera bide luzea dago, hots, lan asko egin behar da. Arabaren egoera kontuan hartuz, orain arte nahikoa zen bertsolariak sortzearekin, hemen ere gabezia hori zegoelako. Izan ere, egun bigarren salto bat eman beharra dugu, bertsolari hauek trebatzea, alegia. Bertsolari bat asko dokumentatu behar da, errimak landu eta ideiak berritzen jardun etengabe. Dena den, egia bada ere, bertsolari ona izatea norberaren erabakia da eta hortaz, kontzientziazte lana funtsezkoa dugu.

-HURRENGO HITZORDUA EUSKAL HERRI MAILAKO BERTSOLARI TXAPELKETA IZANGO DA. NOLA EGINGO DIOZU AURRE?

Ez dut oraindik pentsatu. Udazkenean izango da, beraz, uda partean planteatuko dut zein izango den nire ikuspuntua. Euskal Herri mailako txapelketan ondo egiteko asko prestatu behar da eta mementoz iragana bizi nahi dut.



Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Herri indigenen

INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN ARO HONETAN, ETA KOMUNIKABIDEEN GARRANTZIAZ OHARTURIK, HERRI INDIGENAK IKUSUNTZUNEZKOAK EUREN AHOTSA ZABALTZEKO TRESNA BALIAGARRIA DIRELA KONTURATU DIRA. HORREN SEINALE, MUGARIK GABE GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK "GENERO EKITATEA GLOBALIZAZIOAN" IZENBURUPEAN GASTEIZEN, BILBON ETA DONOSTIAN ESKAINI JARDUNALDIETAN IKUSITAKOA. BERTAN HERRI HAUEN IKUSPEGIA EZAGUTU AHAL IZAN DUGU, EGILE INDIGENEN BURUTUTAKO FIKZIOZKO FILM ETA DOKUMENTALEN BIDEZ, BATIK BAT.

saioa fdz de arangiz

arg: mugarik gabe

Aurten ere, Mugarik Gabe GKEk Prestakuntza eta eztabaidarako jardunaldiak antolatu ditu Euskal Herrian zehar. Ikastaroa eta zinea nahasten dituen ekimena herri indigenei eskaini diete eta apirilean garatu zen Gasteiz, Bilbo eta Donostian.

Horrela, Zine eta Lankidetzak Erakustaldia ospatu zen Gasteizko Guridi aretoan, apirilaren 18tik 21era bitartean. Bertan, egile indigenen ekoiztutako fikziozko film eta dokumentalak ikusgai izan ziren, parada ezin hobea herri indigenen mundu-ikuskerara, kultura eta identitate propioa ezagutzeko.

Ikusentzunezkoak, tresna baliagarria

Globalizazioaren garaian, komunikabideek inoiz ez bezalako eragina daukate pertsonen bizimoduetan, baita hauek



Boliviako ordezkaria

bestelako kulturen inguruan duten ikuspegian ere. Hori dela eta, askotan beste garapen-eredu eta kultura batzuk gure ikuspegitik at geratzen dira. Honetaz guztiaz jabeturik, hainbat ekoizle indigenen ikusentzunezkoak erabili dituzte euren mezua zabaltzeko, identitate indigena indartu nahian eta herri biziak eta dinamikoak direla agerian utziz.

Guztira 20 obra aurkeztu ziren, Bolivia, Mexiko, Zeelanda Berria, Kanada, Peru, Argentina eta Brasiletik etorriak. Horrez gain, lan hauen hainbat egile gure hirira hurbildu ziren euren lanak aurkezteko. Kultur aniztasuna eta aberastasuna, beraz, ez ziren falta izan.

5 egun, errealtate anitzak

Emanaldiaren lehenengo jardunaldian, Guillermo Monteforte mexikarrak, Oaxakako Ojo de Agua elkarteko ordezkariak, 'Bat eginik irabaziko dugu' lana aurkeztu zien ikusleei, duela 26 urte Tosepan eratu zen Titataniske izeneko erakunde txikiari buruzko dokumentala, alegia. Honekin batera, talde ekoizle berak eta Basoko Nazio Batzordeak egindako 'Geroa ereinez' lana ere eskaini zen. Dokumental mexikarrak Oaxaka eskualde mixtekoan bizi direnen istorioa laburtzen du. Emanaldi berean 'Estatuaren indar guztiaz' ere izan zen ikusgai, zehazki, talde militarren zapalkuntza jasotzen

duen Loxicha eskualde zapotekako biztanleen artean jasotako testigantzak biltzen dituen lana.

Egun berean, Zeelanda Berriko maoriek ingeniaritza eta organismoen manipulazio genetikoaren inguruan duten iritzia agerian uzten duen 'Rawekea Ira-Manipulazio Genetikoa' dokumentala eta Wichi film argentinarra eskaini ziren. Azken honek, Argentinako iparraldean kokatzen den Okat komunitateko wichen egoera latza aztertzen du. Amaitzeko, 'Kinja lakaha-Egun bat herrixkan' brasildarra, Amazoniako familia baten egunoroko bizimoduaren berri ematen duen lana, hain zuzen.

Bigarren jardunaldiaren protagonistak Ana Vilacama eta Franklin Gutierrez izan ziren, Boliviako Centro de Formación y Realización Cinematográfica indigenako ordezkariak. Bikoteak fikziozko 'Beldurra gaingintuz' pelikula aurkeztu zuen, aymara familia baten eguneroko bizitza azaltzen duena, alegia.

Bestelako bi sesioetan, 'Lurra gure itxaropenean (Panama Planari aurre eginez)' eta 'Hitz Zapatistak injustiziaren kontra' dokumental mexikarrak eman zituzten. Lehenengoan, mexikar komunitateetan Puebla Panama Planaren politikak nola ari diren ezartzen erakusten den bitartean, bigarrena herrialdeko indigenen duintasunaren aldeko mugimenduez mintzatzen da.

Eguneko azken filma, Estatu espainia-

ahotsa zinean



rrean dauden Boliviako emakumeen hitz zuzenak jasotzen dituen 'Neoliberalismoaren exiliatuak' lana izan zen.

Asteazkenean ere zinema mexikarrak eskuratu zuen nagusitasuna. Izan ere, Juan Jose Garciak, Latinoamerikako

Herri Indigenen Zine eta Komunikazio Batzordeko idazkariak, 'Garapen programak nekazarien hitzetan' dokumentala aurkeztu zuen, Oaxakako nekazarien egoera aztertzen duena, hain zuzen. Gainera, Txiapas aldeko bi etnien inguruko filmei paso eman zien;

batetik, ehuleak diren emakume tsotsilek osatzen duten Xulum Chon kooperatibari buruzko lana eta bestetik, tsetsal etniak urarekin duen arazoa erakusten duen 'Uraren aldeko borroka' dokumentala.

Horrez gain, erresistenzia-borrokan diharduten emakume zapatisten eguneroko bizimodua gertutik ezagutzeko parada egon zen hirugarren egun horretan, baita 'Johnny Begigrix' fikziozko film kanadiarra ikusteko ere, zehatz-mehatz, Ameriketako emakume indiarren arteko harremana lantzen duena.

Jardunaldien azkeneko aurkezpena, ostegunean, Guatemalako Maya Emakume Komunikatzaileen Zentroko Juliana Julajujen esku egon zen. Aurkeztutako filmean ('Bake prozesua Sololan') maya etniari ematen dio hitza, bertan ematen ari den bake prozesuari buruz duten iritzia islatzen baita.

Peruko 'Heriotza Sionen' dokumentalak, Boliviako 'Cocanchej Sutimpy-Gure kokaren izenean' fikzio filmak eta 'Fusila eta metrailaz herria ez da isilduko' dokumentalak osatu zuten egun horretako programazioa.

Azkenik, eta aurtengo jardunaldiari amaiera emateko Zeelanda Berriko 'Balea ibaia' filma proiektatu zen, bertako maorien komunitatean oinarrituta, hain zuzen.

www.mugarikgabe.org

GAIA liburutegi

maite lekue

arg: edorta sanz



ZAPATARI KARRIKAREN BIHOTZEAN KOKATUA DAGO GASTEIZKO LIBURUTEGIRIK BERDEENA.

BERDEA DA, ESTATU ESPAINOLEKO LIBURUTEGI EKOLOGISTA BAKARRA DELAKO, "EZ EKOLOGOA, EZ PROTEKZIONISTA, EZ AMBIENTALISTA, EZTA KONTSERBAZIONISTA ERE, GAIA LIBURUTEGIA LIBURUTEGI EKOLOGISTA DA", CIBELES, BERTAKO SORTZAILEETARIKO BATEK DIOSKUN BEZALA. BERTAN AURKI DAITEZKEEN LIBURUEI BURUZ, LIBURUTEGI BERDE HONEN HISTORIAZ ETA EKOLOGISMOAZ HITZ EGITEKO BETA HARTU DUGU ORAINGOAN. HARA HURBILDU ETA LUCIA, BERTAKO LIBURUZAINA ETA FERNANDO ARRIKAGOITIA, 'CIBELES' AURKITU DITUGU SOLASEAN ARITZEKO GERTU.

berdea



Nekazaritza ekologikoa, baso-ekologia, zoologia, hiri-ekologia, ingurumen-hezkuntza, elikadura-kontrola, medikuntza alternatiboa, sendabelarrak, hondakinen kontrola, klimatologia, meteorologia, energia alternatiboak, ezarritako ekologia, lorezaintza, biologia, gai antinuklear eta antimilitaristak, uraren ekologia, geografia, geologia, edafologia, paleontologia, ekologia oinarria, parke naturalak, landaretza mapak, piszikultura, itsas ekologia, mikologia, atlasak, astronomia, antropologia, bizikleta, sexologia, bidaiak eta drogamenpekotasuna.

Gaia liburutegiko ondarea

Denboraren poderioz eta erakunde publikoetatik jasotzen dituzten laguntza ekonomikoei esker anitzak dira bertan aurki daitezkeen liburuak. Liburutegian dauden jakintza-gaiak deskribatzeko orduan, Gaia Fundazioak eskuragarri duen katalogoari so material orokorrak izendatuko ditugu.

Hauexek dira mapa orokor bat margotuz bertan topa daitezkeen liburuen edukinak. Liburutegi publikoa da, bertara hurbiltzen den edonork har ditzakeelako alokeran liburuak; ez dago liburutegiaren karnet berezirik, nortasun agiria nahikoa dugu libururen bat etxera eramateko. Ordutegiari dagokionez, aldis, 10:00etatik 13:30era arte goizez eta 16:30etik 20:00ak arte arratsalde, astelehenetik ostiralera aurki dezakegu Gaia Liburutegia zabalik. Bertan Lucia Jimenez liburuazaina eta Fernando Arrikagoitia 'Cibeles' Fundazioko kidea topatuko ditugu, ekologismoa zentzu zabalean eta sakonean ulertuz informazioa eskaintzeko gertu.

Ekologismoa gaur eguneko gizartean nola ulertzen duen eta bizi dugun sistemaren ondorioek noraino garamatzaten galdetu diogu gure elkarrizketatua den Cibelesi. Honatx gure solasean sortutako ideiak!

Ekologismoaz Cibelesekin

Pentsamendu ekologistak 80. hamarkadatik oinarri berdina zalantzan jartzen dituela dio Cibelesek, "zer da ekoizten duguna, zertarako balio du, zenbat kutsatzen da, zenbat baliabide natural agortzen dira eta denetan garrantzitsuena, egiten denak gizakiari zertarako balio dio?".

1 980. urtean Arabako Ekologista Taldeak sortu zuen Gaia Fundazioa eta ekimenaren fruitu Gaia Liburutegi Ekologista. Sorrerako urte hauetan jendeari gai antinuklear eta antimilitaristak eskuragarri jartzeko hasi ziren ekimen hau hornitzeko liburu bilketan. Edukin hauek garatzen zituen libururik ez zen gainontzeko liburutegietan erraz aurkitzen eta garaiko gizartearen jakinmina eta egonezina asetzeko hasi ziren liburutegiaren sorkuntzan. Abiapuntu hau izanik gaur egunera arte ia 6800 liburu bildu dituzte liburutegi ekologista honetan. Gasteizko alde zaharrean topa dezakegun liburuen gotorleku honek bilgune bezala ere funtzionatzen du gaur egun, izan ere, astronomoentzat, bizilagunen elkarte batentzat, sortzen ari den elkarte naturista batentzat eta finean bertara hurreratu nahi duen edonorentzat ateak zabaltzen baititu.

EL
BAR Kutxi

eguneko

djBUtec

Paper Berezioak
Arte Ederretarako Materiala
Ink Jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkuedernazioak
Plastifikazioak
Kamiseten Estampaketak
Kopiak

azkarpint
Inprimatzea / Inprimategia
Edozein inprimaketara
mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatzak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

cibeles

Ekologismoa, "gizakiaren oreka" bezala definitzen du, orekarik izan ezean pentsamendu ekologista arrazionalik ezinezkoa dela argudiatuz. Gaur egunean "filosofia ekologistarik ez da" aipatzen digu, folklore bezala ulertzen dela baieztatzen duen bitartean. Surrealistatzat jotzen ditu politikarien aldetik natura ondasunen inguruan egiten diren aldarrikapenak, "ekologismoa ezin baitaiteke garatu giza iraultza eta honek ekarriko duen aldaketarik gabe". Gaur eguneko gizartea, Industri Iraultzaren ondorioz gizarte kapitalista eredupean dagoen bitartean, ekoiztea, agortzea eta berriro ekoiztean zutoitzen da eta hau aldatu ezean ekologismoaren baitan egiten diren hausnarketak ezerezean dira. "Zenbat eta gehiago orduan eta hobe" laudatzen duen zibilizazio batean bizi gara, bizi-kalitatea eta bizi-kantitatea nahasten dituen zibilizazio neoliberal batean, alegia. Garapen jasangarria aipatzean, "hustasuna" datorkio burura gure solaskideari, 1974an Vietnameko gudan lehen aldiz erran zela kontatuz,



ekonomia jasangarriaren testuinguruan; harrez geroztik eta orain dela zazpi urte arte berriro aitatu ez dela esanez. Politikariak barneratu duten "edukin salgarria" dela diosku, eta hitz horren edukinaz galdetzean, hustasuna eskaintzen digutela uste du, ekologismoa salerosi daitekeen merkantzia bihurtzeraino. Abiadura Handiko Trenaz ere itaundu dugu Cibeles eta garraio pribatuaren errealtatea kritikatu eta zalantzan jarri ezean, Abiadura Handiko Trena bezalako garraiobide publikoaren aurka ezer egin ezin daitekeela komentatzen du. Proiektua, astakeria galanta, ez soilik Euskal Herriko lurraldeetan sorraraziko duen hondamendiagatik, inposatutako bizimoduaren azkartasun kontzeptu hutsalagatik baizik.

fernando arrikagoitia, CIBELES, di-da

Kolore bat?

Berdea, kolorerik erlaxanteena dela diote.

Liburu bat?

'Tratado de saber vivir para uso de las nuevas generaciones', Raul Balaguer.

Paisaia natural bat?

Urederraren sorburua.

Munduan leku berezi bat?

Denak

Azkenaldian dabilkizun amets bat?

Nire sexualitatean osoki garatzea.

Gustuko duzun pelikula bat?

Yo Viernes.

Amesgaizto bat?

Gaia liburutegiaren sutea.

Musikari bat?

Leonar Cohen.

Aholku bat?

Zoriontsu izaten saiatzea.

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 beheko - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobile: 639 81 51 30

MIKO
Izozkiak

bar • restaurante
albeniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIARTZUN

XIXILU JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

LIZARRALDE SOINYA 945 226 977

TXALAPARTA, S.L. GASTEIZ

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
EREMU HANDIEN SOINUZTAPENA

EGUR

Zurezko Teilatuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goian Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@eushalnet.net

GAUBEA, gaztelaniaren eta leinu ospetsuen sorleku

Joseba Mikel Agirre Oar

Gaubeak AUTRIGONIAKO erdialdea hartzen du. Autrigoniako lurraldean Euskal Herrian mendebaldean finkatuta zegoen tribua bizi zen; lurralde hori Nerbioi ibaiaren ezkerretatik eta Kantauriko kostatik Oka mendietaraino (Burgos) hedatzen zen. Gaur egungo Enkarterriak eta Aiara eta, bestalde, Bilboko Indautxu, Abanto eta Basurtu auzoak, eta baita San Mames "katedrala" ere hartzen zituen Autrigoniako lurraldeak. Beraz, jatorrizko hizkuntza mendebaldeko euskara zen..., baina handik igaroko zen gero galtzada erromatarra, Deobriga (Puente Larra) eta Uxama Barca (Osma) igaro ondoren Flaviobrigaraino, gaur egungo Bilboraino, iritsiko zena. Horren ondorioz erromanizazio-gune garrantzitsua sortu zen inguru horretan. K.a. 100-200 urteei buruz ari gara.

Sarrazenoen erasoaren eta 711. urtean Guadaletan lortutako garaipenaren ondoren, penintsula osora hedatu ziren; orduan, Gaubeako harana, bere orografia kontuan hartuta, Islamaren tropelak geldiarazteko toki aproposa zen, eta hantxe babestu ziren gaur egungo Gaztelako (Castella Vetula) ipar-ekialdetik iritsitako bisigodo ugari. Bestalde, Oñako Elizbarrutia, Bureban -jatorri autrigoniarreko lurraldea hori ere eta euskarazko toponimia ugari duena-, Gaubeako bihotzera, Valpuestara -Vallis Posita- (gaur egun administratiboki Burgos da) eraman zuten 804. urtean (Auka/Ocako apezpikuaren garaian). Toki hura kristau fedearen gune bihurtu zen eta 30 ermitategi inguru eraiki zituzten, batzuk harkaitzetan, Corron, Pinedon eta beste hainbat tokitan ikus daitekeen moduan.

Gaubeako birpopulazte horrek, Karrantzako haran bizkaitarrean gertatu zen bezala, euskarazko toponimo gehienek galera ekarri zuen. Hala ere, badaude toponimia horren aztarnak eta, hala, gaur egun BASABE deritzen herri bat dugu, izenak berak dioten moduan, basurdez eta orkatzez betetako baso sarrien magalean kokatutako. BARRIO herrixka, Espejoren ondoan, BARRIO DE IBARBEIA izenarekin ageri da duela gutxi testuetan. Haraneko orografiaren barnean, Artzena mendizerraren -haranaren muga naturala harresi-forman- iparraldean dagoela kontuan hartuta, sargune administratibo bat dago; erlieberik gabeko mapan ez dira ikusten administratiboki Burgosen menpe dauden herri hauek: San Millan deritzona San Millan de GABINEA deitzen zen, eta gaur egun San Zadornil deitzen dena San Saturnino de Unzeka zen. Jabi Otsoa de Aldaren eta Estibalitz Breñas Glz. de Zarateren "Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Álava" liburuan toponimia txikiko euskarazko 60 termino baino gehiago agertzen dira.

Beraz, jada latindartutako jende horren asentamenduen eta bertako biztanleen aztarna euskaldunen ondorioz hizkeraren, ahoskeraren eta fonetikaren hainbat forma osatu ziren; 5 bokal nagusitu ziren, eta hori EZ da beste erromantze batzuetan gertatu. Prosodia berezia zuen eta latinaren ondorengo erromantzeetako bat sortu zen. Valpuestako Kartularioak aztertuta, badirudi bertan sortu zela antzinako gaztelania -ziurrenik IX. mendean-, Donemiliaga Kukulan baino lehenago -bertako Kodizeak XI. mendekoak dira-; azken horri dagokionez, egile askok uste dute inguru horretako erromantzea erromantze nafar eta errioxarraren aldaera bat dela. Politikari batzuek ura beren errotara eraman nahi izan dute eta gaztelania Araban sortu zela esaten dute eta, beraz, bertako jatorrizko hizkuntza hori dela; are gehiago, ezjakinak engainatu egiten dituzte eta euskara Araban elementu exotikoa eta arrotza dela esaten

dieta eta hizkuntza hori ikastea eta erabiltzea, euren hitzetan, "Iparraldeko barbaroen" ezarpena dela. Baina ez diote egia: hasteko, erromantze horren aurretik, haran haietan kolonoek eta soldadu erromatarrek ekarritako latin arrunta -koiné- sartu aurretik, mende asko lehenago, euskara hitz egiten zen han; bestalde, lurralde haiek ez ziren artean Arriagako Kofradiako zati, gero gaur egungo Araba administratiboa izango zenaren jatorrizko gunearen zati, baizik eta ekialdetik horrekin muga egiten zuen eta mendebaldetik Catella Viella (Bureba, Mena, Valdivielso, Tobalina)

konderriarekin muga egiten zuen inguruan kokatuta zeuden; lurralde horretan Lantarón konderria eratu zen. Horiek guztiak Iruñeko Erresumaren menpe zeuden, izen hori hartu baitzuen hasieran Nafarroako Erresumak. Azkenik, erromantze hori gaur egungo Arabako mendebaldeko muturreko haranetan sortu ahal izan zen, baina egia da baita ere Arabako gainerako lurraldean, hots, Arriagako Kofradian, Lautadan, Trebiñun, Zuian, Zigoñin, Urkabustaizen, Arrastarian, Koartangon, hau da, gaur egungo Arabako gainerako lurraldean (gero Aramaio eta Aiara ere gehitu zitzaizkion), euskara baino ez zela hitz egiten, mendebaldeko euskara aberatsa, Arabako ezaugarri bereziak zituen eta gaur egungo bizkaieraren oso antzekoa. Nik "MENDEBALDEKO EUSKALKIA" deitzea proposatuko nuke. Joan Perez de Lazarragaren, Larreako Dorreko jaunaren eskuizkribuaren aurkikuntzak horixe adierazten du eta Arabako euskaltzale guztiak harro sentitzen gara.

Inbaditzaile islamiarrei eusteko eta aurre egiteko muga izan zenez, kristau fedea indartu egin zen inguru horretan, baina, horrekin batera, Arabako

eta Euskal Herriko historia administratiboan eta politikoan ibilbide luzea izan duten gerlarien hainbat leinuren sorleku ere izan zen, besteak beste Velasco, Orive, Salazar edo Varona leinuena. Horietako batzuen inguruen kondaira ugari sortu da, baina hori buruz hurrengo batean hitz egingo dugu.

©joseba mikel agirre & geu aldzakaria



VALPUESTA la Cuna del Castellano Escrito



Nicolás Dulanto Sarralde

Valpuesta, la Cuna del Castellano Escrito
(Nicolás Dulanto Sarralde) liburuaren azala

Valpuesta, la Cuna del Castellano Escrito liburuako irudia

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

GEU

GEUREKIN MENDIRA

maiatzak 15
ANBOTO
(1331 m)

(*goizekoa)
Arduraduna:
Kike-945140158
Irteera: goizeko 9:00etan
Lovainan



**GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA**

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

maiatzak 5

Oscar Wilde, Fidel izan beharraz, Ibaizabal 2000

maiatzak 24

Ur Apalategi, Gure Gauzak S.L., Utriusque Vasconiae 2004

Hikaatenoa (Pintore kalea, 13), 20:00etan
Dinamizatzailea: Iban Zaldia idazlea

Hurrengo saioan eztabaidagai izango den liburua:
Ramon Saizarbitoria, Gorde nazazu lurpean, Erein 2000
ekainak 30, osteguna

KULTUR ERROTA

maiatzak 24

Literatura emanaldia: 'Letren kilimak' (Mikelazulo
elkartea)
20:30ean
Parral tabernan

**GEUREKIN MENDIRA GAZTE
TALDEAREN IX. IRTEERA**

maiatzak 29
KOSTALERA

Irteera: goizeko 8:30ean Lovainan. Kotxez
945222153 (GEU elkarte - Josune)

ZINEA EUSKARAZ

hileko 1. larunbatean, 12: 00etan
Antolatzailea: Euskharan elkarte
(Amaia zentroan-Aranbizkarra)

**ARABAKO BERTSOLARI
TXAPELKETAKO MENDIALDEAKO
ERREBANTXA**

maiatzean

Arabako bertsozale elkarte (benito
pz galdos z/g) / 945010505 /
675707971
bertsoaraba@euskalnet.net
araba@bertsozale.com

ZINEA

maiatzak 3-7

NEFF (Europar Zine Berriaren
Jaialdia-Festival de Nuevo Cine
Europeo)

Gasteizko zine erakustaldien
esperientzien bilgunea da
(Ikus-entzunezko Jaialdia & Egile
Berrien Jaialdia & Cortada)
Egitarrak barruan, ikasleentzako
euskarazko emanaldiak izango dira.
www.neffestival.com
Montehermoso Kulturunea:
945161830

**GASTEIZKO IKASPILOTA
TOPAKETAK**

maiatzak 6-13

Mendizorrotzako frontoietan,
10:00etatik 12:30era
Antolatzailea: Ikaspiłota
945233355 - 655739324

ABESBATZA

maiatzak 13

Olabide aurre-eskolania eta
eskolania (haizea rodriguez &
estitxu txurrukaren
zuzendaritzapean)
Ostiraleko Abesbatzen Kantaldien
VIII. edizioa
20:00etan, Vital Kutxa
Fundazioaren Aretoa (Dendaraba)

**EUSKAL HERRIEN ARTEKO
EUSKAL JOKO II. TOPAKETAK**

maiatzak 14

Foru plazan
Antolatzailea: Ikastolen elkarte &
Ikaspiłota
www.xiba.org /

xibaaraba@euskalerrria.org /
945276376-658750998 (Roberto)

**GAUEKOAK. KONTZERTUAK &
DANTZA**

maiatzak 14

'Kontrakalea ekintza': AFRIKA &
MAK taldea. 20:00etan. Azkena
Aretoa. Sarrera: 5 euro (30 urtetik
gorakoentzat: 10 euro).

maiatzak 20

"Vitoria-Gasteiz, Hiri Gaztea" Jaia:
KAUTA taldea. 20:30ean. Kinvara
Aretoa. Sarrera librea.

maiatzak 21

Dantza-gaua: 'Tanta baten historia'.
Arai Danza ikuskizuna. 22:30ean,
Aldabe gizarte-etxean
www.gauekoak.com

ERAKUSKETA

maiatzaren 20ra arte

HIRI GAZTEA ERAIKIZ
Hiria Gunea aretoa (S. Prudentzio,
30)
Bisita gidatuak & informazioa:
945124979
Antolatzailea: Gasteizko Udala
www.vitoria-gasteiz.org

KONTZERTUA

maiatzak 26

SOKAIRE folk taldea
Plaza Berrian

**XVII. RIKARDO ARREGI
KAZETARITZA SARIA**

maiatzak 25 (epea)

2 atal: XVII. Rikardo Arregi
kazetaritza saria/Kazetari Berria
saria
Antolatzailea: Andoingo Udala

KONTZERTUA

maiatzak 26

SOKAIRE folk taldea
Falerina kafetegian (Montehermoso
kulturunea), 20:00etan

**FANTASIAZKO IPUIN LABURREN
XIII UNIBERTSITATE LEHIAKETA**

maiatzak 27 (epea)

Antolatzailea: EHU. Arabako
Campuseko Errektoreordetza
www.vc.ehu.es

AGENDA

IV. ALBOKA TOPAKETA

maiatzak 28
LANTZIEGON
11.00etan - Albokariaren topaketa
11.30etan - Alboka kalejira. Ostean, hamaiketakoa
13.30ean - Albokariak, berrikuntzak eta 3 albokaren zozketa
15.00etan - Herri bazkaria
18.30etan - Buhamiak ipuin-kontalaria
20.00etan - Hungariako Igriczek agerraldia (hungariar gaita)

KULTURika 05

maiatzean: Antzerkia ekaina: Ikaperia (ikasturte amaierako jaia)
urria: Ikasturte hasierako jaia
azaroa: Zinea euskaraz
abendua: Neguko jaia

EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN-2005

Izena emateko epea (ikasleak): **maiatzaren 31 arte**
Helburua: euskara ikasi eta hobetzea
Antolatzaileak: Ulibarri euskaltegia (Bilbo) / Urrats euskaltegia (Donostia).
Informazioa: familientzat: 943474447 (Olga) / ikasleentzat: 944162472 (Alaitz) / www.egonaldiak.net

PARRAL TABERNA

asteartero 20:30ean, hitzordua kulturarekin (kontzertuak, antzerkia, poesia, diaporamak...)

IGARTZA SARIA. VIII. LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA IDAZLE BERRIENTZAT

uztailak 1 (epea)
Antolatzailea: Beasaingo Udala-Euskara Zerbitzua
euskera@beasain.net / 943028063

"SANCHO EL SABIO FUNDazioA" VIII. UNIBERTSITATE MAILAKO IKERKETA LEHIAKETA

uztailak 29 (epea)
www.fsancho-sabio.es / fs-inv@fsancho-sabio.es / 945147800

bestelako hitzordu interesgarriak

'AFRIKA, BESTELAKO BEGIRADA ETA AHOTSAK JARDUNALDIAK'

maiatzean
Hitzaldia: 'Emakume afrikarra'
Hikaateno-n (Pintore kalea 13-behekoa. 945288192
gasteiz@hikaateno.org)

DEBAKO ARTE ESKOLA: UDAKO IKASTAROAK

ekaina-uztailean zehar (epea: ekainak 22)
Grabatua, zeramika, egurra, brontzea, marmola, serigrafia, zeramikoa...
www.debarte.net / 943191804 / debarte@deba.net

EMAKUMEEN MUNDUKO MARTXA



maiatzak 25



HEMEN IZANGO DA LASTER!! ANIMA ZAITEZ!!

Jakingo duzueenez, aurtengo martxoaren 8an Brasiletik abiatu zen Emakumeen Mundu Martxa eta kontinente guztietatik pasatuko da. Europan maiatzetik aurrera egongo da eta Euskal Herrian maiatzaren 24tik 27ra, hain zuzen ere: 24an Bizkaian, 25ean Araban eta Nafarroan, 26an Nafarroan eta Gipuzkoan eta 27an Gipuzkoan eta Iparraldean, hortik Marseilarentz abiatzeko. Egun bakoitzean gai baten inguruan antolatuko dira ekintzak.

Maiatzaren 25ean Araban antolatutako ekitaldiak:

Goizean, Laudion eta Amurrión hezikidetzari buruzko hitzaldi bat egingo da, hango neska talde batek bideratuta.

Gasteizen: Emakumea eta Ekologia

- 9:00 -11:00. Andre Maria Zuriaren plazan, antolaketa: pankarta, kartelak, stand batzuk baserrietako produktuekin, musika...
- 11:30 -12:00. Hazien tailerra: hitzaldi txiki bat, jabetza eta transgenikoen arriskua, hazien trukaketa...
- 12:00 -13:00. Erreleboa Gasteizera helduko da. Harrera ekitaldia: Martxaren aurkezpena, dantza...
- 13:30. Erreleboa Sakanarantz abiatuko da.
- 13:00-14:00. Antzerki Parodia: Superra eta Merkatua.
- Bazkaria.
- 16:00-17:00. "Compostaje" ari buruzko tailerra.
- 17:00-18:00. Hitzaldia: Nekane Jurado. Kontsumoari buruz.
- 18:00-18:30. Tailerra: Nire etxea kutsatuta dago: Produktu kimikoen toxizitatea...
- 18:30etik aurrera. Nekazal ekoizpen tailerrak: xaboia, kandelak, gazta, jokoak...

ERNE EGON!! Ekintza hauen guztien berri emango dugu Gasteizen zehar

Emakumeen Mundu Martxarako Arabako Plataforma



laguntzailea:

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza

Sokaire Sokaire musika folk&zelta gasteiztik



NONDIK DATOR SOKAIRE?

Asmatutako izena da. Kontzertu bat emateko deitu ziguten taldearen hastapenetan, beste jende batek osatzen genuenean. Orduan bat-batean taldea izendatzeko beharra sortu eta bi taldekidek sua eta airea harremandu nahi izan zituzten. Beste talderen baten antza hartu zuen orduan izenak eta soka eta airea lotuz Sokaire izan zen emaitza.

ZEINTZUK OSATZEN DUZUE GAUR EGUN SOKAIRE MUSIKA TALDEA?

6 taldekide gara. Emilio J. Negro gaitajotzailea dugu berritasun nagusia eta djembe eta panderoa ere jotzen jaioa da; zeharkako xirula eta whistleak Jesus Simonen esku; gitarra Jorge Sotresen jotzen du; perkusioa Pablo Reboredok egiten du, eskusoinua eta teklatuak Victor Gutierrezek; eta azkenik, nik neuk biolina.

ZER DELA ETA FOLK MUSIKA?

Gure musika tresnak zeintzuk ziren ikusita argi ikusi genuen folk musika zela egin nahi genuena, gustukoa dugulako gainera. The Corrs taldearen kantak jotzen genituen hasieran, ondoren gaitajolea batu zen eta musika zeltiarraren eragina eskaini zion

SOKAIREren kontzertuak

MAIATZAREN 22an
Plaza Berrian.

MAIATZAREN 26an, FALERINA
kafetegian (Montehermoso
kulturunea). 20:00etan

taldeari.

ZEINTZUK DIRA SOKAIREREN HURBILEKO PROIEKTUAK?

Mementoan guk ateratako maketa bat daukagu esku artean eta zenbait kontzertu eskainiko ditugu maiatza aldera. Musika eta poesia uztartzen dituen proiektu berri bat eskaini digute orain gutxi, galizieraz idatzitako olerki batzuen emanaldirako musika sortzea, hain zuzen, eta horretan ere ari gara. Sokaireren musikari dagokionez, aldiz, orain arte bertsioak egiten aritu garenez, hemendik aurrera gure kantak sortzen hasi nahi dugu musika zeltiarrari kutsu elektronikoa eskainiz.

ZER AURKI DEZAKEGU ZUEK ATERATAKO MAKETA HONETAN?

6 abesti grabatu ditugu gure lokalean. Abesti herrikoiak, guri gustatzen zaizkigunak,

ZEHARKAKO FLAUTA, BIOLINA, GAITA, ESKUSOINUA, TEKLATUA, PERKUSIOA ETA GITARRA NAHASTEAREN IDEIA IZAN ZUTEN BEHIN MUSIKA IKASLEAK ZIREN GARAIA. MUSIKA KLASIKOA JO ETA INTERPRETATZEKO MODU ARRUNTEI ALTERNATIBA ESKAINTZEKO ASMOZ SOKAIRE TALDEA SORTU ZUTEN 2001 URTEAN. SORTUTAKOAREKIN GUSTURA ETA TALDEAN BATU ZIREN KIDE BERRIEN EKARPENEI ESKER MUSIKAN ARITZEKO APUSTUAN MURGILDU ZIREN FOLK&ZELTA MUSIKAREN ERRAIETAN MURGILDUZ. TALDEAREN NONDIK NORAKOEI BURUZ MINTZATZEKO TALDEKO EMAKUME BAKARRAREKIN BILDU GARA, ALAITZ AYALA BIOLINJOLEAREKIN ETA HAUXE DA BERAK KONTATUTAKOA.

bertsioak... Berrogüeto, Carlos Nuñez, Luar Na Nubre, adibidez, dira disko honetan present dauden musikariak.

Esperientzia interesgarria izan da maketa grabatzearena eta hein handi batean lan handia batzuentzat. Gitarrajole Jorge Sotres izan da muntaia egiten ibili dena; argazkiak eta diseinua berriz, etxekoan artean

geratu da.

NON EMAN DITUZUE KONTZERTUAK?

Tabernetan gehienbat jo izan dugu, baina herrietako zentro kulturaletan ere izan gara. Hamairuren bat kanta eskaini ohi ditugu zuzenean eta hasierako urduritasunak gaindituta, gero eta erosoago sentitzen gara eszenatokian. Sokaire zuzenean ikus-entzun nahi duenarentzat maiatzaren bi kontzertu proposatzen dizkiogu: maiatzaren 22an Plaza Berrian, eta maiatzaren 26an Falerina Kafetegian. Gure taldeari buruz informazio gehiago nahi duenarentzat, bestetik, hementxe doa gure web orrialdea, www.sokaire.tk; bertan gure maketa osatzen duten kantuak aurkitu ditzakezue, besteak beste, baita gurekin kontaktuan jartzeko bidea ere.

IRVSTA
poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

ITVRRIETA

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90


EYSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ


Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurrira, hurbila eta saiatua.

Horixe duzu gure konpromisoa.



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Euskadik behar zaitu



EAJ PNV

'euskal bidaiarien memoria' (elea argitaletxea)

Bene-benetako bidaiarien idazlanek bertute adierazgarria izan ohi dute: deskribatzen diren esperientzia pertsonalak akuilatzaile ditugula, baina ez ditugula berdindu nahi. Lurraren eta pertsonaren arteko elkartzea deskribatzen dute idazlan horiek. Bidaiarien idazlanei esker mundua, drama naturalak, lurraldeak eta jendeak deskubritzen ditugu, eta protagonistaren bitartez pasio oinarizkoenak senti ditzakegu: adorea eta beldurra, borondatea, iraunkortasuna, sena...

Liburu honen asmoa da gorabehera zirrargarriak bizi edo bidaia interesgarriak

egin dituzten euskaldunen presentzia gogoratzea. Lehenbiziko begi kolpean ez dirudi Euskal Herrian bidaia liburu ugari dugunik, ez kalitatez ez kantitatez; tradizioz bada, haatik, ikusiko dugunez.

Euskal Herri osoan izan dira bidaiari harigariak, bai horixe. Batez ere arrantzale eta marinel iaioak eta ausartak izan dira euskaldunak, baina bestelakorik ere agertuko dizu liburu honek: funtzionarioak, abenturazaleak, piratak, soldaduak, geografoak, biologoak...

Goazen, bada, abenturazale hauen

irudiak lagun ditugula, txoko ezkutuetarantz, errealitate urrunetarantz eta kultura arrotzetarantz.

Angel Martinez Salazar

Langraiz Oka, 1957

Idazlea eta kazetaria.

Euskal komunikabide askotan idazten du eta aditua da bidaia eta bidaiari kontuetan. Laster gerra korrespontsalei buruzko liburua kaleratuko du.

errezeta

GAMARRAKO OSTALARITZA ESKOLA

Zerbaren orrimamiak txahalaren isatsarekin beteak eta idiazabal gaztarekin gainerreak

4 PERTSONENTZAKO OSAGIAK:

Zerbaren orrimami egosiak	8 u.
Arrautza osoak	1 u.
Oliba-olioa	4 c.s.
Ezkai-adarrak	8 u.
Isats erregosia:	
Txahal-isatsa	1 kg.
Azenarioak	100 gr.
Tipulak	150 gr.
Porruak	1 u.
Baratzuriak	3 u.
Tomate helduak	100 gr.
Ardo beltza	1/2 l.
Oliba-olioa	1 dl.
Irin bahetua	10 gr.
Gatza eta piperbeltza	1 c.c.
Garni buketa	1 esku.
Saltsa berdea:	
Zerba-hostoak	100 gr.
Ziazerbak	50 gr.
Baratzuri-aleak	1 u.
Oliba-olioa	2 c.s.
Barazki edo haragi-salda	1 dl.
Hirugihar ondua, xerrak	3 u.
Gatza eta piperbeltza	1/2 c.c.
Idiazabal krema:	
Tipula brunoise	50 r.
Onddo txikituak	25 gr.
Idiazabal gazta	50 gr.
Oliba-olioa	2 c.s.
Esne-gain likidoa	4 c.s.
Hegazti edo haragi-salda	6 c.s.
Gatza eta piperbeltza	apur bat
Xehetasunak:	
Baba samur eta zurituak	2 c.s.
Apurtutako almendra erreak	8 u.

Prestakuntza:

Isats erregosia:

• Barazkiak garbitu eta zuritu, zentimetro bateko zatietan zatitu, baratzuriak xerratan moztu eta dena elkarrekin egin ontzi batean olio bota ondoren.

• Bestalde, zatitutako isatsa gorritu olio apur batean (aurrez gatza eta piperbeltza bota eta irinetan pasa); gero presio-eltze batean sartu barazkiekin, ardo beltzarekin, dadoetan zatitutako tomatearekin eta bouquet gamirekin batera. Urez estali eta irakinarazi. Gatz nahikoa duen egiaztatu, tapa jarri eta presio-eltzean egosi 30 minututan. Gero isatsa atera, saltsa iragazi eta loditzen utzi (1 dl).

• Bien bitartean, isatsaren haragia txikitu, ondo txikitutako barazkiak gehitu eta gerorako gorde.

• Behin zerbak (zabalak izan behar dute) egosi ondoren, 12 cm-ko luzeran moztu eta berdindu. Arrautzetan pasatu eta zartaginean frijitu eta gorritu. Atera eta paper xurgatzailearen gainean jarri.

Gatza-krema:

• Tipula oliotan gorritu, onddoak bota eta ur guztia bota arte utzi, esne-gaina gehitu eta gero saldarekin busti. Gatza arraspatua bota eta poliki-poliki egosi. Gatza nahikoa duen egiaztatu eta gorde.



Saltsa berdea:

• Zerben eta ziazerben hostoak garbitu eta ur gazitan irakin. Gero ur izoztutan hoztu.

• Zartagin batean baratzuriak gorritu eta atera. Hirugiharra julianan moztu eta frijitu, olio kendu eta koipea gorde.

• Zerben eta ziazerben hostoak saldan birindu eta fin-fin utzi. Sare metalikozko iragazkitik pasatu. Hirugiharren olioari gatza eta piperbeltza bota.


Azken txanpa:

Zerbitzatzeko unean, bete lau zerbak txikitutako isatsarekin. Bota Idiazabal krema gainetik eta gainerre.

Platerean ezartzerakoan zerbak erditik moztu eta saltsa berde apur bat eta salda apur bat bota. Amaitzeko, apurtutako eta erretako almendra batzuk, baba frijituak eta ez kai-adarrak erantsi.

Araba bixotzian

alfredo ibarra



"Herririk herri ibili zinan
gehienetan umoretsu, goibel
daudenak alaitutzeko izan duzu
hainbat mezu, txistea kontatzen
paregabea eta futbolearen berriz maisu,
TXIKI HANDIENA ZINEN (HAIZ) ZU"

zutabea

Bertakoari so!



ERLANTZ

URTASUNen txokoa

Aspaldiko Iparraldeaz bi hitz

Zenbait egileren irudiko Europa Zaharraren hondamendiaz ari gara. Eta are gehiago, indarrean den teoriarik aipatuenari jarraikiz, egungo Euskal Herria Europako populazioaren hondarra litzateke. Ildo horretarik, EHUKo irakaslea den Alfontso Martinez Lizardukoak zabaldu du oraino ikuspegiak hurbilen bilakatu dena, hots, balizko "Euskal Zibilizazioa". Ongi ezagutzen ez dugun mundu zahar hura, halere, ez zen gai izan indoeuroparren uholdeei aitzin egiteko, hondarrean inbasoreen antolaketa, egiturak, armak, hizkuntzak nahiz kulturen menpe geratuz. Europako bazter batean, baina, erabateko ordezkapena ez zen burutu, eta euskaraz bizi zirenek erronka historiko horri eutsi ahal izan zioten.

Zer zegoen, hortaz, orduko Iparralde zabalean? Henry Saint-Blanquat egilearen hitzak dira: "Los yacimientos de hierro pirenaicos permitieron a una civilización desconocida durante mucho tiempo evolucionar al sur del Garona, desde Burdeos hasta el Pirineo". Ezezaguna? Guretako ez, jakina. Baina frantses egile horrek "zibilizazioa" deitu dio orduko Euskal Herriari...

Bidetik agerturiko erromatarren lekukotasuna ere hor dugu, Julio Zesarren testigantza. Izan ere, bere gerra egunkari ospetsuaren lehendabiziko lerroak irakurri, bertzerik ez baitago: "A los galos (celtas) separa de los aquitanos el río Garona. Se diferencian entre sí en lenguaje, costumbres y leyes". Strabonen ustez, halaber, "akitaniarrak bereizten dira Galiar arrazatik beren gorpuzkeraz nola beren hizkuntzaz, eta antz handiagoa dute iberiarrekin".

Arkeologiak eduki baieztazen du orain arte erranikoa. Irakur EHUKo irakaslea den Joakin Gorrotxategiren lana: euskal izena duten garai hartako idazkun gehienak, ia denak, egungo Euskal Herriatik urrun baitira, batez ere Aran eta Andorratik iparralderantz. Hor ziren, Gipuzkoako Irun, Nafarroako Iruñea edota Arabako Iruñaz aparte, euskal hiririk garrantzitsuenak.

Erromatar aldiaren euskaldunok geureari eutsi genion, eta autonomia handia gozatu ahal izan genuen, Lapurdiko Hazparne herrian 1685. urtean kausituriko idazkuna lekuko: "Verusek, kantoiko buruzagi denak, Augustuaren aitzinean mandatu bat eginik, Galiarregandik bereiztea lortu du". K.o. 300. urtearen inguruaz ari gara, irakurle, ordurako erromatarrek jadanik 500 urtez hemen ari zirela...

GEUREKIN MENDIRA MAIATZAREN 15^{EA}N

ANBOTO

(1331 M)
(*goizekoa)

Arduraduna:
Kike-
945140158
Irteera:
goizeko
9:00etan
Lovainan



KULTUR ERROTA

MAIATZAK 24, ASTEARTEA

LITERATURA EMANALDIA,

Mikelazulo elkartearen eskutik:

'Letren kilimak'

20:30ean, Parral tabernan

LETREN KILIMAK ikuskizuna

'Letren kilimak' ikuskizunak poesia du oinarrian. Mikelazulo kultur elkartearen eguneroko funtzionamenduari estuki lotuta, ikuskizun honen bidez esperimentaziorako aukerak sortu nahi dira, funtsean poesia musika, antzerkia, zuzeneko pintura edo bat-batekotasunarekin uztartuz. 'Letren kilimak' gidoi itxia duen saio bat baino gehiago, tarteka elementu ezberdinekin gauzatzen den esperimentu bat da. Orain bi urte lehen aldiz egin zenetik 30 ekitaldi baino gehiago egin dira Euskal Herriko txoko ezberdinetan, aldi bakoitzean saio ezberdin bat gauzatuz. Kasuan kasu erabili izan diren elementuen artean ondoko hauek egon dira (erreferentzia gisa): saxoa, pianoa, gitara elektrikoa, txalaparta, kantautoreak, musika elektronikoa, kontrabaxua, antzerki bakarrizketak, zuzenean 2-3 pintorek egindako koadroak, diapositiben proiektzioak... Poesia irakurketei dagokienez hamar gazte inguruk osatutako taldea dago oinarrian, haien artean 2001 urtean argitaratutako 'Beste bat apalerako' liburuko partaide asko.



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

MAIATZAK 5, OSTEAGUNA

Oscar Wilde, Fidel izan beharraz,
Ibaizabal 2000

MAIATZAK 24, ASTEARTEA

Ur Apalategi,

Gure Gauzak S.A., Utriusque Vasconiae 2004

Hikaatenoa (Pintore kalea, 13),
20:00etan

Dinamizatzailea: Iban Zaldia idazlea

Hurrengo saioan eztabaidagai izango den liburua:
Ramon Saizarbitoria, Gorde nazazu lurpean, Erein 2000
Ekainaren 30a, osteguna

GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN IX. IRTEERA

MAIATZAREN

29^{AN}

KOSTALERA

Irteera: goizeko 8:30ean
Lovainan. Kotxez
Informazioa: 945222153
(GEU elkarte - Josune)

KANGEUROAK

Zerrenda honetan agertu
nahiez gero eman zure izena
eta telefonoa eta zehaztu zure
ordutegia: 945222153 /
geugaste@gn.es

Aldi berean, zerrendan
agertu nahi ez baduzu,
abisua eman.

- Ordutegi guztiak:
Leire. 656726701
- Arratsaldean eta Gazez:
Nerea. 658733934
- Asteburuak:
Nagore. 945281124

IRAGARKITXOAK

Apartamentua alokatzen dut (altzariak
baditu) Federico Baraibar kalean; 45 m2 ditu honela
banatuak: logela bat, egongela, bainugela, sukaldea
eta arropa zabaltzeko balkoi txikia. Gaseko
berokuntza du eta igogailua ere bai. Oso ondo
zaindua dago eta bista ederrak ditu. Tl.: 653
714 556

GEUrekin mendira: 10 urte mendia eta euskara maitatzen

jose luis ormaetxea, 'txipi'

Aurten bete dira 10 urte GEU elkartearen barruan mendi-taldea sortu zela. Eta horren kariatara, apirilean ospakizunak egin ziren. 8an, ostirarekin, Luis de Ajurian ekitaldi ederra izan genuen: alde batetik, Kike Corres taldekideak 10 urtean zeharreko argazki-bilduma eskaini zigun, muntaia polita eginez (zorionak!, zinez). Ondoren, Alberto Iñurrategik Gure Himalayaren proiektioa eman zigun. Lan horretan irudiak indar handia badu ere, testuak ez du txikiagoa, eta, baten baino gehiagoren iritziz, gehiagotan ikusi eta entzun beharra dago, batez ere arretaz entzun, mezu osoaren jabe egin nahi izatekotan. Ostean, emanaldian izandakoek Errioxako ardoa eta pintxoren bat dastatzeko aukera izan genuen Woody tabernan. Eta eguna behar bezala amaitzeko, 30 bat lagun elkartu ginen Conde de Alava jatetxean afaritan. Afari ona, giro ezin hobea, eta amaieran kantua. Ramon tartean izanik, ez dago mahaitik altxatzerik euskal kantu tradizionalari errepaso zabala eman aurretik.

Eta urteurrena biribiltzeko, 10ean, igandearekin, duela 10 urte lehen ibilaldi ofiziala izan zena errepikatzen ginen gonbidatuak. 12 lagunek erantzun genion gonbiteari: Arantzazu, Bego A., Bego E., Iñaki M., Jon, Joseba, Julen, Kike, Kontxi-Iñaki ama-semeak, Maite eta ni. Ibilbidea: Lovaina plaza-Armentia-Zaldiaran-Busto-San Miguel-Villanueva-Argantzun. Lovainatik 9:10ean irten eta Argantzunera 14:00etan iritsi ginen. Armentia eta Ezkibetik igaroz, taldeko elitea (Iñaki M., Joseba, Julen eta Maitek osatua) Zaldiaranera igo zen bitartean, besteok Bustorantz jo genuen. "Mendian gora haritza"

Busto gainean. 10. urteurreneko ibilaldia



dio abestiak. Guk pagoa (*Fagus sylvatica*, esango luke Iñakik) ikusi eta gozatu genuen; izan ere, gorantz zeharkatu genuen pagadi elurtua zoragarri baitzegoen. Jonek esaten zidan berak umetan hortxe izan zuela naturarekin lehen harremana. Gero denok Buston elkartu, eta hurrengo San Miguel. Azkenik, beherantz, Villanuevaraino, eta handik errepidez Argantzunera. Argantzuneko kaleetan sartzen ari ginelarik, kanpai-hotsak, eta arratsaldeko ordu bietakoak baziren ere, guk herriak egiten zigun harrera ontzat hartu genuen. Eta bai bikaina Ansotegi tabernan egin ziguten abegia eta eman ziguten zerbitzua. Gustura egon ginen 3rak arte, jan-edan eta hitz eginez. 15:13an trena Gasteizera. 16:00etarako etxean, bainuontzian nekea arindu guran.

Laburbilduz, 10. urteurrena ederto joan da, eta esango nuke indarberriturik irten garela, eta erabaki sendoz mendia eta euskara uztartzen jarraitzeko beste mila urtetan... gutxienez.

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Dalvez
argitarazleak
www.dalvez.com
945.245.269 - 652.776.509
GASTEIZ

diseinua
maketazioa

BATZUETAN, GURE HERRIAK
SUPERHEROI BATEN BEHARRA
DUELA IRUDITZEN ZAIT...
ARAZO GUZTIAK ERRAZ
KONPONTZEKO...



GURE ZERUAK
ZEHARKATUZ
...



...BAZTER
GUZTIETARA
ZIZTU BIZIAN
AILEGATZEKO
ETA...



KOADRILAAA!



KAKA! "VAYA
SEMANITA" FENOME-
NOAREKIN KOKOTE-
RAINO NAGO...



DANBA!

- L.H.ko DIOCESIAR OBRAren Ikastetxea
- Lanbide Heziketa osoko Ikastetxea
- HEZKUNTZA SAILAren hitzartutako Ikastetxea
- JUSTIZIA ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA
SAILAren babespeko Ikastetxea.
- ARABAKO LHko PARTZUERGOKO kide
- HOBETUZ eta INEMek homologaturiko Ikastetxea
- LANGAIren Ikastetxe laguntzailea
- HETELera y UCARA elkartutako Ikastetxea
- CAJA VITAL KUTXAren Gizarte Ekintzen baitakoa



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



NIEVES CANO IKASTETXEA

D.B.H. (A, B eta D eredueta)

ARRIAGA IKASTETXEA

D.B.H. (A, B eta D eredueta)

Lanbide Heziketa Zikloak

Batxilergoak



ARRIAGA IKASTETXEA

- Teknologia Batxilergoa (A eta D eredueta)
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa

MOLINUEVO IKASTETXEA

- Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa (A eta D eredueta)
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa (A eta D eredueta)

NIEVES CANO IKASTETXEA

- Teknologia Batxilergoa (A eta D eredueta)
- Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

ARRIAGA	• Lineak Eramatea eta Instalazioen Mantentze elektromekanikoa	2.000 o. E
	• Ibilgailuen Elektromekanika	2.000 o. E
MOLINUEVO	• Administrazio Kudeaketa	1.300 o. E-G
	• Ile-Apalketa	2.000 o. E
	• Erizain Laguntzaileen Zainketak	1.400 o. G
NIEVES CANO	• Mekanizazio	2.000 o. E-G
	• Informatika Sistemen Explotazioa	2.000 o. E
MENDIZORROTZA	• Taberna eta Jatetxe Zerbitzuak	1.400 o. E
	• Sukaldaritza	2.000 o. E
	• Gozokintza eta Okintza	1.400 o. E

GOI MAILAKO ZIKLOAK

ARRIAGA	• Elektroteknika Gaiak Garatzea	2.000 o. E
	• Erregulazio eta Kontrol Automatikoaren Sistemak (Elektronika)	2.000 o. E
	• Industri Ekipoak Mantentzea	2.000 o. E
	• Automobilgintza	2.000 o. E
	• Telekomunikazio eta informatika Sistemak	2.000 o. E
	• Informatika Aplikazioen Garapena	2.000 o. E-G
	• Informatika Sistemen Administrazioa	2.000 o. E
MOLINUEVO	• Administrazioa eta Finantzak	2.000 o. E-G
	• Administrazioa eta Finantzak (hirueletasuna gastelania, euskara eta ingeleza)	2.000 o. E
	• Idazkaritza	1.300 o. E
	• Garraioaren Kudeaketa	2.000 o. E
	• Merkataritza Kudeaketa eta Marketina	1.400 o. G
	• Estetika	2.000 o. E
	• Integrazio Soziala	1.700 o. E
NIEVES CANO	• Mekanizazioko Produktzioa	2.000 o. E-G
	• Proiektu Mekanikoaren Garapena	2.000 o. E
	• Diagnostiko Klinikoaren Laborategia	2.000 o. E

• A eta D eredueta ematen diren Zikloak

E Egunezkoa
G Gauzezkoa
E-G Egunezkoa eta Gauzezkoa



DIOCESANAS Arriaga

Pozoa kalea, z/g.
01013 VITORIA - GASTEIZ
Tel.: 945 010 110 • Fax: 945 010 119
e-mail:arriaga@diocesanas.org



DIOCESANAS Molinuevo

San Ignacio kalea, 6
01001 VITORIA - GASTEIZ
Tel.: 945 010 120 • Fax: 945 010 129
e-mail:molinuevo@diocesanas.org



DIOCESANAS Nieves Cano

Nieves Cano kalea, 10
01006 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 010 130 • Fax: 945 010 139
e-mail:nieves.cano@diocesanas.org



DIOCESANAS Mendizorrotza

G^a. Salazar Plaza, z/g.
01007 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 010 140 • Fax: 945 010 149
e-mail:mendizorrotza@diocesanas.org



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Diputación
Foral de Alava



Arabako
Foru Aldundia

BURUKETAK



Argibideak
eta eskariak.
Tel./Faxe:
945 25 75 14

- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.

Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.

BURUKETAK



IZARGI

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

